

# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2005eko martxoaren 18a • V. urtea • 192. zenbakia • DOAN BANATZEKO



**BARRUAN,  
ZURE HERRIKO  
ALDIZKARIA**

**BERGARA**

Epaitegiko lanak amaituta, inaugurazioa atzeratudute /8

**MARIA ROSANGELA DE JESUS / ETORKINA**

*"Etorkinen artean, emakumezkook errazagoa dugu lana aurkitzea, baina zaila da guztiondako" /9*

**Goienka2a**

Blog komunitatea sortzen hasia da Debagoienean



**BARRUAN, GEHIGARRIA: EZKONTZEN GAINEKO ZORTZI ORRIALDE**



GOIATZ ARANA

**Eguraldiak eta herriek bat Korrikarekin**

Korrika Debagoienetik igarotzen den bakoitzean gertatzen den moduan, eguaztenean ere kaleak jendez bete ziren Korrikari ongietorria egiteko eta euskararen alde antxintxika egiteko. Eguraldi ederra izan genuen, gainera. Izan ere, eguzkia lagun izan genuen ilundu zuen arte, Oñatitik Elgetaraino, eta Leintz aldera heldu zenerako izarren distirak argitu zuen korrikaldia. *Tiki, taka, tiki, taka, Korrika!* leloari eutsiz, ibarreko herri gehienak zeharkatu zituen egun berean, 72 kilometroko ibilbidea eginez, eta Leintz Gatzagara gauerdian heldu zenean, han segitzen zuten indartsuenek Arabarantz. Ikastetxeetako neska-mutikoez ere ospatu zuten Korrikaren etorrera. /6-7

**ASTEKO GAIA: ARRASATEKO HILERRIAN**

## Erraustegia itxiko dute jaiegunetan

Arrasateko hilerrian dagoen gorpuak errausteko labea itxi egingo dute domeka eta jaiegunetan, maiatzaren 1etik aurrera. Arrasaten dago ibarreko erraustegi bakarra; hortaz, neurri horrek eragin egingo die Debagoieneko hainbat familiari.

Horrez gain, Arrasaten ez da ehorzketarik egingo domeka eta jaiegunetan. Izan ere, Arrasateko Udalak, Gipuzkoako herri handi askok bezala, erabaki du hilerri zerbitzurik ez ematea egun horietan, udal baliabideak hobeto antolatzeko. /2-3

## Merkataritzako euskara aztergai izan dute Oñatin

Merkataritzako eta zerbitzueta-ko hizkuntza normalizazioaren jardunaldiak antolatu ditu Debagoieneko Mankomunitateak. Oñatin izan dira jardunaldiok eta helburu nagusia izan da admi-

nistratziotik euskararen erabile-  
ra bultzatzea. Euskara teknikari,  
euskara elkartetako langile  
eta hizlari, 95 lagun elkartu ziren  
eguzten eta eguenean Oñatiko  
kultura elkartean. /4

PSP: LEHEN ~~74,95€~~ PROMOZIOA **52,45€**

**SPORT HIN WEHR** SPRINGSUMMER 05

www.forumspor.com

**%30 BEHERAPENA** (ADIDAS) DETAIL TRACKSUIT adidas

**SPORTLAND** FORUM GROUPS  
KIROLA ZEURE ESKURA

SPORTLAND ARRASATE Garibai Etorbidea, 2-6

Iragarri honetan ageri diren prezio eta sustapenak martxoaren 15etik apirilaren 30era balio dute.

**LOIOLA KLINIKA**

**BEGIETAKO KLINIKA**  
Begietako mikrokirurgia:  
Kataratak: Miopia / Hipermetropia.  
Bitreo-erretinako gaixotasuna: Erretina-askatzea / Laser tratamendua. Termoterapia / Makulako gaixotasunak / Erretinopatia diabetiko konplikatu

**Manuel Salaberria** Mediku oftalmologoa

AZPEITIA / KLINIKA: Loiola auzoa 25 C. T: 943 15 17 52. F: 943 15 18 91  
DONOSTIA / KONTSULTA: Zubieta 11-1. T: 943 44 46 79

**OÑATI**  
**Bi urte barru zabaldu nahi dituzte Arrikruzeko kobak**

Diputazioko ordezkariak Oñatin izan ziren eguaztenean. San Migel errota berreraikuntza lanak, Arrikruzeko kobaren proiektua eta Arantzazuko lanak bisitatu zituzten udaleko ordezkariekin batera. Andoni Gartzia alkateak Arrikruzten esan zuen urte pare bat barru zabalduko dutela koba turistendako. /8

# Jaieguna bada, errausketarik ez

■ Arrasateko hilerrietan ez da ehorzketa ez errausketarik egingo domeka eta jaietan

■ Neurriak ibarrean du eragina, Arrasaten dago-eta inguruko errausketa-labe bakarra

nolako ikasketak,  
halako lana\*

\* Lanbide, Euskal Enplegu Zerbitzuak egindako ikerketaren arabera, MONDRAGON UNIBERTSITATEan ikasitako %90,7ak bere ikasketekin bat datorren lanpostua lortzen du; eta gainera, batz bestek beste bi hilabeteren buruan.

**m**  
MONDRAGON  
UNIBERTSITATEA

LEIRE KORTABARRIA

**M**aiatzaren 1etik aurrera, senideen gorpuak Arrasaten erraustu gura dituzten familiek ezin izango dute hori domeka eta jaiegunetan egin. Bestalde, Arrasateko hilerrietan ez dute ehorzketarik egingo egun horietan. Hilerriak —San Kristobalgora eta auzoetako hilerriak, hau da, Santa Ageda, Garagartza, Udala eta Bedoñakoak— zabalik egongo dira egun osoan bisitatzeko, baina emango duten zerbitzu bakarra izango da beilatokiarena eta gorpuak hartzearena ehortzi edo erraustu arte.

Aldaketa horiek ekarriko ditu Arrasateko Udalak onartu berri duen arau batek, Gipuzkoako herri handienetan oso hedatua dagoena. Jaurlaritzako Osasun Sailaren 202/2004 Dekretuaren aplikazioa da. Lege horrek gorpu bat burubidea eman gabe edukitzea epea luzatu zuen 48

ordutik 72ra, eta horrek ahalbidetzen du heriotza gertatzen denetik ehorzketa edo errausketa atzeratzea. Arrasateko Udalak erabaki hori hartu du bere baliabideak modu egokiagoan antolatzeko, zerbitzua emateari utzi gabe. Izan ere, bi udal langilek dihardute orain hango hilerrian eta, asteburu eta jai egunetan egin beharrek badago, lan egin behar dute. Maiatzetik aurrera, domeka eta jaiegunak eurek ere jai hartuko dituzte.

San Kristobalgora beilatokiak zerbitzua ematen jarraituko du, bi eratarik: batetik, neurriaren aplikazioa dela-eta, ehorzketa edo errausketa atzeratu behar duten familiei gorpu hantzeak edukitzea utziko diote, doan. Bestetik, beilatoki zerbitzua erabilteza aukeratzen duen Arrasateko zein kanpoko familiendako ere zabalik egongo da; zerbitzu horrengatik, aukerakoa denez gero, orain arte bezala, 62,10 euro kobratuko da.

## Hilerriko langileak

**A**rrasateko udal hilerrian bi udal langilek egiten dute lan, astegunetan egun osoz, eta asteburuetan, beharra dagoenean. Denetarik lanak egiten dituzte han. Bergaran, ehorzle bat eta laguntzaile bat daude. Oñatin, langile batek dihardu, eta hilerrian egoten da normalean.

Beste herrietan ez da normalean hilerrian langilerik egoten; behar denean bakarrik joaten dira. Aretxabaletan eta Gatzagan, udal langileek egiten dituzte egin beharreko lanak. Eskoriatzan, pertsona bakarra joaten da. Elgetan, Bergarako ehorzlea joaten da, eta udal langileek txukuntzen dute hilerria. Antzuolan eta Aramaion, enpresa batek egiten ditu hilerriko lan guztiak.

## Goizez ere ehorzketak

**H**erriaren tamaina dela-eta, Arrasateko hilerriko zerbitzuak eta funtzionamenduak ez dute ibarreko gainerakoekin zerikusirik. Esaterako, joan den ekainaz geroztik, arrasatearrek aukera dute ehorzketak goizean egiteko; ordura arte, gorpuak elizkizunaren ondoren ehorzten zen beti, herri gehienetan gertatzen den moduan. Hala ere, familia gehienek betiko ordutegia nahiago dute: iaz, hamar ehorzketa bakarrik egin zituzten goizez.

Gipuzkoan, lau herritan —Donostia, Hondarribia, Irun eta Tolosa— beti goizez ehorzten dira gorpuak; hamabitan (Errenteria, Hernani, Oiartzun, Pasaia...) elizkizunaren aurretik edo ostean, familien arabera; gainerakoetan, beti ondoren.



LEIRE KORTABARRIA

Arrasateko hilerriko langileak, hilobi bati tapa ipintzen.



LEIRE KORTABARRIA

Salbuespenak salbuespen, marmolistek ez dute domeka eta jaiegunetan lanik egiten.

### ORDU GUTXIKO ITXAROTEA

Neurriak eragingo die Arrasaten ehortzi behar diren gorpuei, eta baita Debagoieneko beste batzuei ere: Arrasateko udal hilerrian dago Debagoieneko erraustegi bakarra, gero eta gehiago erabiltzen dena; han dago baita ibarreko beilatokietako bat, eta Arrasate ez beste herrietako familiek ere erabil dezakete. Hori da Debagoieneko udal beilatoki bakarra; Arrasaten eta Bergaran, ehortzetxeek ere eskaintzen dute zerbitzu hori.

Arrasateko Udal Zerbitzu Sailak honakoa dio: "Kasu gehienetan, heriotza gertatzen denetik ehortzen den arte ordu batzuk bakarrik pasatuko dira. Horrez gain, jaiegun asko jarraian datozenean, kasuz kasu aztertuko dugu. Kanposantua ez da inoiz bi egun jarraian itxita egongo. Elizkizunak ere ohiko moduan egin ahal izango dira". Itxoite-epe luzeena errausketekin gerta daiteke, ehortzetekin baino gehiago.

*Arauk eragiten  
dien familiek  
gorpua doan gorde  
ahal izango dute  
ehortzi arte*

*Neurriaren  
helburua da udal  
baliabideak modu  
egokiagoan  
antolatzea*

*Ehortzetxei egotzen  
zaie gorpuz  
arduratzea, eta  
haiek ez daude  
neurriarekin ados*

Bestetik, orain hilerrian diharduten bi udal langileek, Itziarrek eta Andonik, domekak eta jaiegunak jai hartuko dituzte, eta neurri hori "ondo" ikusten dutela dioskute. Gaur egun, denetariko lanak egiten dituzte Arrasateko hilerrietan: bulegoan egon, jendeari harrera egin, gorpua hartu eta ehortzi edo erraustu, gorpuzkinak erraustu, hilerriak txukundu... Egunotan, Itziar eta Andoni lanpetuta zeuden hamar urte ehortzita daramatzen gorpuzkinak ateratzen eta horiei burubidea ematen. Asteburuetan, guardia sistemarekin egiten dute lan: "Udaltzaingoak ematen digu eguneko parte, goizean, eta behar diren orduetan egiten dugu lan", dioskute.

### EHORTZETXEAK EZ DAUDE ADOS

Hala ere, alderdi guztiak ez daude konforme. Izan ere, udal langileek ez dutenez egun horietan hilerrian gorpuzkin jasoko, lan hori kasu bakoitzean dagokion ehortzetxeak egitea aurreikusitako Arrasateko Udalak.

Hain zuzen, egun horietan ehortzetxe horretako bi langilek gorpua eraman eta izozkailuan uztea erabaki du Udalak. Arrasate, San Felipe, Moiu eta Euskalduna ehortzetxeak idatzi bat sinatu dute Arrasateko Udalean aurkezteko, eta eskatzen diote araua berriro begiratzea.

Ehortzetxeen kezu nagusia da orain udal langileek egiten duten lana euren egotzi dietela: "Hilerriren %99 Udalarenak dira, eta

zerbitzuen artean dago gorpua hartzea. Ehortzetxeak enpresa pribatuak dira, ez udal langileak; hortaz, gure iritziz, Arrasateko Udalak egoera hau konpondu behar du jaiegunetan gorpuzkin hartuz, baina udal langileak erabiltzeki". Beste arazo batzuk ere ikusten dituzte: esaterako, jaiegunetan gorpua San Kristobalera eraman behar dela erabakienez, auzo-hilerriren baten ehortzi behar bada, zeinek eraman duen gorpua haraino.

Udalak ez ditu hilerriko zerbitzu tasak igoko, eta ehortzetxeetako arduradunek ziurtatu dute euren ez dizkietela euren asegurduneei prezioak igoko. Idatzian, honako galdera egiten dute: "Lan hori ehortzetxeek egiten badugu, Udalak hartuko du faktura hori bere gain?". Gaineratzen dute antzeko neurriak dituzten beste herri batzuetan Udalak antolatzen duela gorpuzkin harrera, bai udal langileen bitartez, bai lan horretarako enpresa bat kontratatuta.

Desadostasuna dago, baina ehortzetxeetako arduradunek esan dute udal ordezkariekin hitz egiten jarraitzeko asmoa dutela.

Modu batera zein bestera, neurria onartuta dago eta maiatzetik aurrera egongo da indarrean. Debagoieneko beste udalengan ez da lege hori aplikatzeko aukera aipatu ere egin, eta ez dirudi hala egingo dutenik. Izan ere, antolakuntza mota horrek populazio jakin batetik gorako herrietan bakarrik du zentzua.

## Gehiengoak, erraustu

Europa osoan, gero eta gehiago erabakitzen dute gorpua erraustea, ehortzi beharrean. Debagoienean ere hala da: datu bat ematearren, 2003a ezker, hildakoen erdia baino gehiagoren gorpuzkinak erraustu egin ziren: 2003an, hildakoen %54,3, eta iaz, %51,3.

Gehienbat, Arrasateko familiek erabiltzen dute erraustegia: iaz, 141 gorpuzkinak erraustu ziren, eta horietatik 76 (%53,9) Arrasaten erroldatutako pertsonenak ziren. Beste kopuruak hauek dira: Bergarakoak, 37 (erraustutako %26,2); Aretxabaletakoak, bederatzi (%6,38); Eskoriatzako bost (%3,54); Aramaioko hiru (%2,12); Oñati, Elgoibar eta Antzuolako bina gorpuzkin (%1,41), eta beste bost beste herri batzuetakoak ziren.

Arrasaten erroldatutako pertsona baten gorpuzkinak erraustea 200 euro da; kanpokoendako, 230.



LEIRE KORTABARRIA

San Kristobalgo errausketa-labea da Debagoieneko bakarra.

Mazda3. Behar duzuna badaukazu?



Bikar

**M MENDIOLA**



San Andres 10 D · Tel.: 943 77 21 00 · ARRASATE

MAZDA

**Langile okupatuentzako  
prestakuntza finantziatuak  
%100-ean**

- MS Project
- Web orrien diseinua
- Komunikazio teknikak
- Lidergo
- Bileren zuzendaritza
- Stress-aren denbora eta kontrol kudeaketa
- Lan arriskuen prebentzioa
- Ingurugiro talkaren ebaluaketa
- Irakaskuntzako langintza osasuna (ahotsaren hezkuntza)

AKADEMIA

**BASTIDA**

Info: 943 79 35 33

formacioncontinuuabego@bastida.es



Hizkuntzaren normalizazioan lanean diharduten adituek esperientziak trukatu zituzten Oñatiko kultur etxean.

## Merkataritzako eta zerbitzuetako euskara atzertu dute Oñatin

Arlo horietan euskararen erabilera bultzatzeko beharra azpimarratu dute

IRATI AGIRREAZALDEGI

Merkataritzako eta zerbitzuetako hizkuntza normalizazioaren jardunaldiak egin ditu Debagoieneko Mankomunitateak. Oñatin izan dira jardunaldiok eta helburu nagusia izan da administrazioetik euskararen erabilera bultzatzea.

Euskara teknikari, euskara elkarreetako langile eta hizlari, 95 lagun elkartu ziren eguzten eta eguean Oñatiko kultur etxean Debagoieneko Mankomunitateak antolatutako jardunaldietan.

Eusko Jaurlaritzak kontsumitzaileen lege berri bat kalertu du eta horren baitan zehazten da kontsumitzaileek zein eskubide eta betebeharrak dituzten hizkuntzarekiko. Hori oinarritzat hartuta merkataritzan eta zerbitzuetan hizkuntzaren normalizazioaren gaia landu dute jardunaldietan.

### ESPERIENTZIAK

Jardunaldietan, hizkuntza normalizazioan adituak diren gonbidatuek hitz egin dute. Besteak beste, Kataluniako Generalitateko teknikari Joan Ramon Sole-k.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako teknikari Jon Aizpuruk EAEko denda, taberna eta jate-txeetako euskararen ezagutza eta erabilera datuak eman zituen.

Iñaki Agirreazkuenagak gaiaren alderdi juridikoaz jardun zuen. Honetaz gain, hainbat esperientzia zehatz ezagutzeko aukera ere izan zen: Igorrekua eta Elgoibarkoa, esaterako. Eroskiko, Siadecoko eta Merkataritza Federazioko ordezkariak ere euren ikuspuntua azaldu zuten.

Administrazioetik euskararen erabilera bultzatzeko beharra azpimarratu zuten guztiek.

## Borroka eguna eguenean, salatzen "Euskal Herriaren aurkako erasoak"

Arrasaten manifestazioa izan zen arratsaldean, protesta egiteko

I. AGIRREAZALDEGI/N. ZUBIETE

Borroka eguna zegoen iragarrita atzorako, egunerako. "Euskal Herriaren aurka Madrildik egiten dabiltzan erasoak" salatzen zen helburua.

Borroka egunaren antolatzaileek esan dute Euskal Herrian arrazoi ugari dagoela protesta egiteko: "Batasuna legez kanpo utzi dute eta hauteskundeetara ezin go da aurkeztu, beraz, eskubide zibila ukatu diete hiritar askori. Bestalde, gazteak ari dira epaitzen Madrilen, frogarik gabe".

Euskal presoaren borroka ere aipatu zuten: "Urte hasieran txandakako itxialdiak egin zituzten, eskubide politikoak aldarrikatzeko. Aste honetan, gainera, gose grebari ekin diote".

### MOBILIZAZIOAK

Horren guztiaren gainean protesta egiteko manifestazioa izan zen egun arratsaldean Arrasaten.

Ibarreko hainbat herritan ere izan zen protesta ekitaldirik eguerdian. LAB sindikatuak bat egin zuen borroka egunarekin.

## Arantzazuko ibilaldia egingo dute bihar hainbat fededunek

09:30ean abiatuko da, Uriarte gotzaina buru dela

MARIA AGIRRE

Oñatitik Arantzazura bitartean dauden arantzi kilometroak oinez eta otoitzean egingo dituzte bihar milaka erromesek. Joan Mari Uriarte Donostiako gotzaina izango da ibilaldiaren buru. 09:30ean hasiko da.

Gipuzkoako elizbarrutiko kideek hitzordua dute bihar Oñatin. Ebanjelioaren testigu leloarekin, Arantzazuko ibilaldia egingo da 09:30ean abiatuta. Otoitz eta kantu giroan egingo dituzte zortzi kilometroak, eta eguraldiak laguntzen badu, milaka fededun elkartuko direla espero da. Joan Mari Uriarte gotzaina ibilaldiaren buru izango da, eta 165 bozgorailu erabiliz, otoitzak ez ezik, Jon Enbeita bertsolariaren bertsoak helaraziko zaizkie parte hartuko duten erromesei. Ibil-

dia eguerdi aldera iritsiko da Arantzazura. Behin santutegian, otoitz egin eta Uriarte gotzainak mezua irakurriko du.

### PARTE HARTZEKO DEI EGIN DUTE

Donostiako gotzaintzak gazteei ibilaldian parte hartzeko dei egin die. Era berean, parrokiako kideei ahalegina egitea eskatu diete, ahalik eta jende gehien hurbil dadin ibilaldira. Askok oinez, baina beste hainbat autobusez joango da Arantzazura.

*Eguerdi aldera iritsiko da ibilaldia Arantzazura, eta Uriartek mezua irakurriko du*



### Artzain Eskolako ikasleak, diplomaren jabe

Orain dela sei hilabete hasi zituzten 18 ikaslek Gomiztegi base-rikiko Artzain Eskolan ikasketak. Euskal Herriko hainbat txokotatik Arantzazura joandakoak dira gehienak, 14, hain zuzen ere. Baina izan dira Txiletik, Kolonbiatik eta Galiziatik etorritakoak ere. Ikasturtean zehar ikasle bakoitzak 150 ardira osatutako artaldea zaindu behar izan du; honetaz gain, gazta egiten eta merkaturatzen ere ikasi dute, besteak beste. Ikasleei diploma bana eman zieten, ikasketak amaitu dituztela ziurtatzeko. Orain ikasitakoa praktikan jartzea baino ez zaie gelditzen. Urbanan artzain lanetan jarduten duen Amezkuaiko Nicolas Remiro ere omendu zuten ekitaldian. //A.

**0000 km**  
Mondeo C-Max Fiesta

Haxe da aukera!

**MUGARRI**  
Araba Etorbidea, z/g ARRASATE  
www.mugarri.es

**Ford**  
gozatzen pentsatuak irauteko eginak

**TOLDOS LECE S/L**

Eguzkiari aurre egiten diogu inork baino hobeto

Prezio onenak ditugu!

Kataide Industrialdea 14 Musakola • ARRASATE • Tel.: 943 79 23 83 Faxa: 943 77 04 45  
Mallabierna auzoa 6 • IURRETA • Bizkaia • Tel.: 94 681 76 19

LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK 2005

# Debagoieneko asko dira hautagai, baina gehienak zerrendak osatzeko

Rafael Uribarren (EAJ/EA) eta Blanca Roncalek, legebiltzarkide izateko aukera

ENEKO AZKARATE

Oraingo astean argitaratu dituzte Euskadiko Aldizkari Ofizialean Eusko Legebiltzarreko hautagaien zerrendak. Debagoiendar asko ikusi ditugu zerrendetan, baina oso gutxi dute legebiltzarkide izateko aukera.

Hain justu ere, bi hautagaik bakarrik lortuko dute, seguruen, aukeratuak ateratzea: Rafael Uribarren arrasatearra (EAJ), Gipuzkoatik laugarren doana eta Blanca Roncal, zinegotzia dena Arrasateko Udalean, eta hirugarren doana PSE-EEko zerrendan Gipuzkoatik.

Biak hala biak legebiltzarkideak izan dira amaitu berri den legegintzaldian —jeltzalea, Lurralde Antolamendu eta Garraioetako batzordeko burua izan da— eta hurrengoan ere izango dira. Izan ere, EAJ-EA koalizioak 12 eserleku lortu zituen 2001eko hauteskundeetan eta PSE-EEk lau.


EAJko zerrendetan, Iñigo Alberdi bergararra ere badao 16. postuan, Gipuzkoatik eta PPkoetan, bestalde, Arrasateko zinegotzi Itziar Lamarain doa bederatzigarren. Sozialisten zerrendetan, Arabatik Oskar Rodriguez Vaz aurkitu dugu, Arrasaten jaioa eta laugarren doana. Bestalde, Unidad Alavesak Araban aurkeztu dituenetan, Aritz Arrieta Kabiketa, hura ere Arrasaten jaioa, ageri da hirugarren postuan.

## AUKERA GUZTIAK?

Bozketetara aurkezteko behar zituen babes eta sinadurak lortu ditu Aukera Guztiak taldeak, eta zerrendak eguaztenean eman zituzten ezagutzera. Hautagaien artean bergarar bat ageri da: Iña-

## EZKER BATUA: GUZTIEN ARTEKO ELKARRIZKETA


Ezker Batuak hauteskunderako egitasmo politikoa aurkeztu du Arrasaten oraingo astean. Martin Calvo hautagaiak adierazi zuen moduan, hiru dira EBren proiektu politikoaren ardatz nagusiak. Lehenik, akordiorako elkarrizketa, eskklusio bakoa. Bigarrenik, herriak erabakitze kontsultaren beharra defendatzen dute. Kontsulta binkulantea izan beharko du, muga guztien gainetik egitekoa. Azkenik, bide federalaren aldarrikapena egiten dute, atxikimendu askean oinarritutakoa.



Rafael Uribarren (Arrasate, EAJ/EA).



Blanca Roncal (Arrasate, PSE-EE).



Juan Martin Elexpuru (Bergara, Aralar).



Martin Calvo (Arrasate, EB).



Mireia Unamuno (Antzuola, Batasuna).



Itziar Lamarain (Arrasate, PP).

## Aukera Guztiak-en zerrendan, bigarren Gipuzkoatik, Iñaki Arantzabal bergararra da

ki Arantzabal, bigarrena doana Gipuzkoatik. Aukera berria izanda, ikusteke dago zenbat legebiltzarkide lortuko dituzten —epaileek baliogabe uzten ez badituzte zerrendok—, baina, agian, hirugarren legebiltzarkide bat izan dezake Debagoienak, Iñaki Arantzabalekin.

## ARALAR, LEHEN ALDIZ

Aralar alderdia lehen aldiz aurkeztuko da Euskal Legebiltzarreko hauteskundeetara, eta ikuskizun dago ordezkariarik lortuko ote duen. Inkesta batzuek eserleku bat eman diote Gipuzkoan.

Aralarren Gipuzkoako zerrendan bost hautagai daude gure ibarrekoak: Juan Martin Elexpuru bergararra, bosgarren; Ainhoa Larrañaga, hura ere bergararra, seigarren; Xabier Sarasua aretxabaletarra, zazpigarren; Garazi Etxeberria arrasatearra, hamargarren, eta Yolanda Urmeneta, oñatiarra, hamaseigarren. Eta, Arabakoetan, beste bat: Aran Ibahe Zubizarreta, aramaioarra, seigarren doana.

## EZKER BATUA, HERRIZ HERRI

Ezker Batukoak herriz herri dabilta euren egitasmoa aurkeztu. Astelehenean Arrasaten izan ziren, besteak beste, Gipuzkoako zerrendan hirugarren doan Martin Calvo arrasatearra. EBko Gipuzkoako zerrendetan beste bi debagoiendar ere aurkitu ditugu: Isabel Salud bergararra da bat, bosgarren doana, eta Ander Rodriguez arrasatearra bestea, 23. lekuan doana.

## ARNALDO OTEGI OÑATIN

Batasuneko Gipuzkoako zerrendan 16. postuan doa Mireia Unamuno antzuolarra, aurreko agintaldian alkate izandakoa. Zerrenda-buru, beste behin, Arnaldo Otegi doa. Jakinekua da Batasuna legez kanpo dagoela eta epaileek baliogabe utziko dituztela lortzen dituzten botoak, baina "zailtasunen gainetik" hauteskundera aurkeztuko direla eta kanpaina egingo dutela adierazi dute. Esate baterako, gaur, barikua, Oñatin izango da, 19.00etan, Santa Ana antzokian.

## DENETARIKOAK

Ohiko alderdiez gain, beste batzuk ere aurkeztu dira hauteskundera: Coalicion Verdes y Animalistas; Partido Obrero Socialista Internacionalista; Partido Humanista; Partido Comunista de las Tierras Vascas... Azken horretan, oñatiar bat aurkitu dugu, Reyes Kortabarría Mugartza, 22. postuan doana Gipuzkoatik.



## LABUR

### Urrezko domina, kooperatiben sortzaileei

Omenaldia eskaini zien eguean Diputazioak Arrasateko kooperatibismoaren sortzaileei. Bizirik daudenek, Jose Mari Ormaetxea eta Alfonso Gorroñoioitiak, Gipuzkoako urrezko domina jaso zuten. Hilda dauden gainontzeko fundatzaileen izenean, berriz, familiar-tekoek, urrezko plaka.

### Diputazioko ordezkariak MUn bisitari

Mondragon Unibertsitatea bisitatzea etortzekoak ziren gaur, egubakoitza, goizean Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Batzarretako ordezkariak, hain justu ere: Leire Ereño Gipuzkoako Batzarretako presidentea, Berrikuntzarako batzordeko buru Pello Gonzalez eta Berrikuntza diputatu Joaquín Villa. Bisitaren helburua zen unibertsitatea gertuagotik ezagutzea eta MCCko Zientzia eta Teknologia Plana aurkeztea. MU eta Garaia Ikerkuntza Gunea bisitatzeak zituzten.

### 18/98 auziaren gaineko hitzaldia Monterronen

18/98 auziaren gaineko hitzaldia eskainiko dute datorren martitzenean Arrasateko Monterronen hiru legelarik. Hain justu ere, honako hauek: Mario Zubiagak, 18/98 Eta Gehiago plataformako kide denak; Nekane San Miguel epaileak, eta Natale Landa abokatu eta auzi horretan inputatua dagoenak. 19:30ean izango da hitzaldia.

### Fagorrek egin dio 162,5 milioi euroko eskaintza Brandti

Fagor Etxetresna Kooperati-ba Elkarteak 162,5 milioi euroko eskaintza egin dio Elco Holland BV enpresari, eros-teko Elco France BVren %90. Aipatu enpresa holandarra Elco Holdings LTD israeldar-raren filiala da. Elcoren Frantziako enpresa hori erosiz gero, Fagorrek eskuratuko luke %100. Izan ere, lehendik bada MCCko inbertsioetarako atalaren bidez, beste %10aren jabe. Elco France BV da Elco Brandt SA enpresaren sozietate jabea. Elco Brandt SA liderra da Frantzia linea zuriko gailuetan. Enpresa frantziarra aztertzen dabil Fagorren eskaintza.

# Guretik igaro eta gero, Bilborantz doa Korrika

*Debagoiengan jende askok eta askok parte hartu duelako, eskerrak ematen dizkiete guztiei AEK-k eta Korrika 14k*




## 1. OÑATI / 16:20 Udanatik herrira sartzen

Oñatiar asko Udanako mendatera joan ziren lehenengo oinez, eta Korrikarekin batera jaitsi ziren herriraino. Batzuk, gainera, Zubillagaraino ere heldu ziren ia. Herriko txikienek, berriz, kolo-reetako globoekin egin zioten ongietorria Korrikari, eta langileak etentxo bat egin eta taileretik irten ziren korrikalariak animatzera. Tropela gizenduta heldu zen plazara.



## 4. ELGETA / 19:05 Herriko Plazan

Ez zuten meritu makala izan Bergaratik Elgetara bidean aldapan gora korrika egin zutenek, baina ez ziren gutxi izan. Eta are gehiago bildu ziren Elgetara hurbildu ahala. Beste herrietan bezala, amnistia eta presoek euskal herriratzea aldarrikatu zituzten horretan ere. Elgetatik Elorriora joan zen Korrika eta Kanpanzartik bueltan Debagoiengan sartu zen berriro.



## 5. KANPANZAR / 20:23 Ilunetan ere korrika

Kanpanzarren behera kubatarrek, brasildarrek eta beste hainbat herrialdetako lagunak eraman zuten lekukoa. Mundukide programako lagunak dira. Gainera, azkar etortzea egokitu zitzaizen Arrasatera pentsatutako orduan iristeko.



## 8. ARETXABALETA / 23:00 Herriko kaleetan

Aretxabaletan etxafuegoekin egin zioten ongietorria Korrikari. Kurtzebarri eskolakoek Untzilla auzoan hartu zuten Korrika eta Arizmendi ikastolakoek, berriz, Loramendin. Elkarte gastronomikoek, kirolariek eta politikariek ere hartu zuten parte.



## 9. ESKORIATZA / 23:20 Herriko plazatik pasa ostean

Berandu iritsi zen Korrika Eskoriatzara, baina gaua ez zen aitzakia izan. Herritar asko atera ziren kalera Korrikarekin batera kilometroak korrikan egiteko, tartean HUHEZIKO ikasle asko. Eskoriatzako erretiratuen elkarteko lekukoa 75 urteko gizonetzko batek eraman zuen, eta Gatzagaraino heltzeko asmoa zuen...



## 2. ELORREGI / 17:25 Elorregitik Bergarara bidean

Begarako lagun dezente Elorregiraino joan ziren lehendabizi eta batzuk, gainera, Elgetaraino iritsi ziren gero Korrikarekin batera antxintxika. Lekukoarekin batera, liburu bat pasatu zion elkarte batek hurrengoari.



## 3. BERGARA / 18:30 Bergarako erdigunea atzean utzita

Labegarrietako auzokoez Bergarako gaztetxeari hartu zioten lekukoa eta Ozaetatik aurrera herri-raino etorri ziren euskararen aldeko oihuak eginez. Guztira 16 kilometro saldu zituzten Bergaran eta hainbat eragilek eraman zuten lekukoa. Horietako bat, Migelon-ek, duela gutxi arte espe-tean egon den herritarrak. Antzuollarrak ere Bergarara joan ziren korrika egitera.



## 6. ARRASATE / 21:00 Herriko kaleetan

Arrasateko kaleetan, Jon Agirre preso aramaioarraren egoera salatu gura izan zuten eta Joxepa Arregik, Garratz-ek, gurpildun aulki bat eraman zuten zenbait metroetan. Jende asko bildu zen Arrasateko kaleetan. Korrika 14ko antolatzaileak harrিতuta gelditu ziren Debagoienera Korrikak izan duen harrera jendetsu eta beroarekin.



## 7. ARAMAIO / 21:55 Untzillarako bidean

Araba ere euskararen alde oihukatu zuten Aramaio aldean. Auzo-etatik pasatzean babes handia jaso zuen Korrikak. Dantza taldekoek hartu zuten lekukoa Zabola inguruan eta Untzillarako bidean haiek izan ziren protagonista.



## 10. GATZAGA / 00:00 Gipuzkoatik Arabara

Bere martxan joan zen Korrika Gatzagako aldapan gora ere. Arabako bidea hartu zuen gero euskararen aldeko martxak. Marieta, Ozaeta, Narbaxa eta Zalduondoko euskaltzaleek hartu zuten debagoiendarren lekukoa.

### KORRIKA, FURGONETAREN AURRETIK Furgonetako gidariak noranzko okerra hartu zuen Gatzagan

Gatzaga ere erditik igaro nahi zuen Korrikako lehen furgonetak, baina udaletxea aldera hartu ordez, Dorletako santutegira joateko bidea hartu zuen. Jendea herri erditik pasatu zen korrika, baina furgonetak kanpotik joan behar izan zuten korrikalariei aurrea hartzeko.

### KILOMETROAK ETA EROSLEAK 69 kilometro ditu eskualdeak, eta 97 saldu dituzte

Oraingo Korrikan ere kilometro asko saldu dituzte eskualdean, daudenak baino gehiago. Udanatik Gatzagaraino 69 zituzten saltzeko eta guztira 97 saldu dituzte. Erosleak Debagoieneko elkarteak, ikastetxeak, koadrilak, enpresak eta bestelako eragileak izan dira.

### ORDUAN IGARO ZEN ESKUALDETIK Kanpanzarren behera zitzu bizian etorri zen Korrika

Ordua ondo errespetatu zuen beste behin Korrikak: 16:00ak aldera Udanan eta 00:00etan Gatzagan. Hala ere, Arrasatera 8,10 minutuko atzerapenarekin zetorren, eta Kanpanzarren behera zitzu bizian etorri ziren korrika. Baita Aretxabaletatik Eskoriatzara bitartean ere.

### BAKEROEKIN ZEIN TXANDALAREKIN Trikitia aldean duela ere egin du korrika norbaitek Oñatin

Asko korrika egiteko arroparekin batu ziren euskararen aldeko martxara. Beste asko, ordea, aldean zutenarekin hasi ziren korrika, praka bakeroeekin zein zapatekin. Zubillagara bidean, trikiti eta guzti hasi zen mutil bat korrika eta azkenean furgonetara sartu zen jendea animatzea.

## ANTZUOLA

**Saharako umeak udan etxean jasotzeko familia bila dabilta**

Antzuolako familiak behar dituzte udan Saharako umeak etxean jasotzeko. Ekimen hori Antzuolan antolatzen den lehendabiziko aldia da. Arrasateko Nubi gobernuz kanpoko elkarteak eta Antzuolako Udalak adostu dute Oporrak Bakean programa. Uztaila eta abuztua pasatuko dituzte hemen umeek.

Saharako ume horiek etxean jaso nahi dituzten familiek udaletxera jo dezakete informazio gehiago eskatzera, edo Nubi elkartera deitu, honako telefono zenbakietara: 685 72 48 16/17/18. /AINTZANE IRIZAR



## OÑATI

**Bi urte barru zabaltzeko asmoa dute Arrikruzeko kobak**

Gipuzkoako Diputazioko Turismo Saileko ordezkariak Oñatin izan ziren eguaztenean. San Migel errotaren berreraikuntza lanak, Arrikruzeko kobaren proiektua eta Arantzazuko lanak bisitatu zituzten, besteak beste, udaleko ordezkariekin batera. Andoni Gartzia alkateak Arrikruzten esan zuen asmoa dutela urte pare bat barru zabaltzeko kobak turistendako. Guztira, 4 milioi euro inbertituko dituzte. Dagoeneko kobaren sarrerara joateko bidea zabaldu dute eta apirilera tunela txertatuko dutela uste dute. Horrekin batera, koba barruko ibilbidea zein materialekin egin ikertzen ari dira. Gero, aparkalekua eta harrera-gunea ere egingo dituzte. Kobetan 14 kilometro daude galerietan, baina 500 metro baino ez dituzte zabalduko turistendako. /O.E.

## ARAMAIO

**Bihar jokatu dute bertsolari txapelketako bigarren finalerdia**

Arabako Bertsolari Txapelketako bigarren finalerdia Legutianon jokatu dute. Bihar izango da saioa, 19:00etan hasita, kultura etxean.

## AURKARI GOGORRAK

Sei bertsolari jardungo dute lehia. Tartean, Manex Agirrek. Lehiakide gogorak izango ditu aramaiorak aurrez aurre: Oihane Perea, Zigor Enbeita, Orlando Arreitunandia, Rikardo Gonzalez de Durana eta Izar Mendiguren, hain zuzen ere. Gaiak jartzen, berriz, beste aramaior bat ibiliko da: Lierni Altuna. /U.M.

## ELGETA

**Aurrekontuak martxoan amaitu aurretik onartu nahi dituzte**

Udalak gertu du aurtengo aurrekontuen zirriborroa. Alkatearen asmoa da martxoan amaitu aurretik udalbatzarrean onartzea. Zirriborroaren arabera, aurten gastuetarako erabiliko duten kopurua 5.416.000 euro da. Sarrereterako, berriz, 5.575.280 euro izango dira. Aurrekontuetako diru gehiena inbertsioetarako erabiliko dute: 4.000.000 euro. Hirigintzan egingo dira inbertsio nagusiak. Besteak beste, Torrealdea eta Pagatzako urbanizazio lanak eta Maalako parkea egingo dituzte. /I.A.

## ARRASATE

**Herritarrendako arreta bulegoa sortzeko lanean hasi da Arrasateko Udala**

Herritarrei arreta emateko bulego baten beharra dagoela ikusi du Udalak. Asmoa da herritarrei lana erraztea; hala, udal tramiteak egiteko orduan, herritarrek, orain bezala leihatilaz leihatila ibili beharrean, bulego bakarera joan daitezten. Udaleko Barne Kudeaketa eta Kalitateko Saileko buru Jose Mari Erañak argitu digu: "Helburua da Udalaren zerbitzuak zentralizatzeko eta erosoago jartzea (...). Bulego horretan ahalik eta zerbitzu administratibo gehien ematea".

Gaineratu digu herri handietan ohikoak izaten direla halako bulegoak (Eibar, Irun...), eta Arrasatek, herri ertaina izan arren, halako baten beharra duela.

## AURRENEKO PAUSOA

Hain zuzen ere, oraingo astean, bulego hori sortzeko aurreneko pausoa egin dute: antolaketaz arduratuko den pertsona aukeratzeko prozesua zabaltzea. Jose Mari Erañak jakinarazi digunez, hilabete barru-edo hasiko da pertsona hori bulego berriaren kontua lantzen.

## PROIEKTUA HASI BERRI

Besteak beste, pertsona horren lana izango da erabakitzea non ipiniko duten bulegoa. Udaletxean bertan izan daiteke (behealdean) edo udaletxetik kanpo (betiere, kalearen mailan).

Horrekin batera, azertu beharko du zein izango den bulegoaren betebeharrak, bestela esanda, zein udal tramite egin ahal izango diren bulego horretan.

## Zertzelada

**Herri handietan ohikoak izaten dira halako bulegoak (Eibar, Irun...), eta Arrasatek, herri ertaina izan arren, halako baten beharra du**

## BERGARA

**Epaitegiko lanak amaituta izan arren, inaugurazioa atzeratuta**

Urtebete pasatxo igaro da Bergarako epaitegiko zaharberitze lanak hasi zituaztenetik. Lanak amaitu dira, eta egunotan inaugurazioa egitekoa zen. Hala ere, azkenean ekitaldia atzeratu du Jaurlaritzak.

Justizia, Lan eta Gizarte Gaietako Sailak egin du epaitegia egokitzekeko proiektua. Lanen aurre-

kontua 281.000 euro inguru izan da. Epaitegia XIX. mendearen bigarren erdiko da. Besteak beste, ezinduendako sarrera egin dute, eta horretarako hesitxo bat egin dute eraikineren aurrealdean. Erakineren estalkia konpondu, fatxada garbitu eta leihoak ere aldatu dituzte azken hilabeteotan. /E.M.



Lanen ondorioz, Ariznoa plazak itxura berria dauka.

## ARETXABALETA

**Autoestima tailerra antolatu du Udalak apirilean hasi eta ekaina bitarterako**

Emakumeendako autoestima tailerra antolatu du Aretxabaletako Udalak. Apirilaren 7an hasi eta eguen goizetan emango dituzte eskolak ekainaren 9a bitartean. Bi orduko saioak izango dira, hamar guztira, eta Pilar Bojo irakasleak emango ditu. Izena emateko Udaleko Prebentzio Sailera deitu behar da martxoaren 21etik 31ra bitartean.

Autoestima tailerra ia antolatu zuen lehenengo aldiz Udalak. 40 urte inguruko 12 emakume ibili ziren orduan, eta oso gustura bukatu zuten guztiak. /M.A.

## ESKORIATZA

**Ibarraundi museoa aukeratu du epaimahaiak museo berrirako**

Ibarraundi Museoa izango da Ibarraundi jauregian kokatuko duten museoaren izena. Aste honetan aukeratu dute Museo Eskola zenarentzako izen berria. Lehiaketa bidez egin dute hautaketa, eta zazpi pertsona aurkeztu ziren sariketara.

Izenari dagokionez, euren proposamenak egin zituzten lehiakideek eta, gainera, logotipoa ere diseinatu zuten. Azkenean, Gorka Zubizarreta arrasatearrak aurkeztutako lana aukeratu zuen epaimahaiak. 300 euroko saria eskuratuko du. /Z.V.M.

## GATZAGA

**Partxis eta oka jokoetan arituko dira herriko gaztetxoak, bihar**

Herriko gaztetxoentzako lehiaketa antolatu du Leintz Gatzagako Labidea dendak. Bihar, zapatua, partxis eta oka jokoetan aritzeko aukera izango dute.

17:30ean hasiko dira jolasten, Labidea dendan bertan. "Nagusienek partxisean jokatu dute eta gazteenek, berriz, oka jokatu", eman dute aditzera antolatzaileek. Ondoren, sari banaketa egongo da. "Ez dakigu ziur zer banatuko dugun, baina liburu bat edo beste emango dugu opari gisa", gaineratu dute. /Z.V.M.



**B**rasildarra da Maria Rosangela De Jesus eta lan bila etorri zen Bergarara. Lana aurkitzea, ordea, ez zaio uste bezain erraza izan. Aurrerantzean, gainera, etorkinak erregulatzeko lege berriekin, zailagoa izango dela iruditzen zaio.

OIHANA ELORTZA

#### Noiz etorri zinen Bergarara?

Duela hiru hilabete etorri nintzen. Bergarara etorri aurretik, ordea, Logroñon egon nintzen. Brasildik Logroñora joan nintzen lehendabizi.

#### Bakarrrik etorri zinen?

Bai, horrela da. Hemen, ordea, lagun bat nuen, eta harengana etorri nintzen. Hark esan zidan nik neuk moldatu behar nuela, eta hortxe ibili naiz, atzera eta aurrera han eta hemen galdetzen. Gure herrian bagenekien nora jo beharraren arabera, baina hemen ikasi behar izan dut non dauden elkarteak, udaletxea, apaiza eta bestelakoak. Hasieran pentsatu nuen lagundu ez ninduelako egiten zuela hori, baina konturatu naiz gauzak bakarrrik eginda asko ikasi dudala. Gaztelania ere ez nuen lehen hitz egiten, ez nekien; orain, ordea, neure burua defendatzeko adina hitz egiten dut eta bakarrrik moldatzeak asko lagundu dit hizkuntza ikasten ere.

#### Baduzu senitartekorik hemen?

Zazpi urteko semea dut nirekin.

#### Zergatik etorri zinen?

Gehienok etorri garen arrazoi beragatik, arazo ekonomikoei aurre egiteko.

Nik, hala ere, kirurgia operazio bat egin behar dut. Brasilen banuen lana eta nahiko eroso bizi nintzen seme-alabekin batera, baina han lana nuen arren, ez nuen inoiz operazioa ordaintzeko beste diru aurreztuko. Beraz, dirua egiteko eta, batez ere, azkarrago egiteko, nire herrialdea utzi eta Espainiara etorri nintzen.

#### Ezagutzen dituzun beste etorkinak zergatik etorri dira?

Denak etorri dira etorkizun hobe baten bila. Gure herrialdeetan ez dugu aukerarik seme-alabei ikasketak emateko. Egia esan, inoiz ez genuen pentsatu gure herri-irten beharko genuela lan bila, baina egin behar izan dugu.

#### Erraza egin zaizu lana aurkitzea?

Ez da erraza izan, ez. Ez niretako bakarrrik; etorkinari oro har oso zaila egiten ari zaio hemen lana aurkitzea.

Gehienok, gainera, Espainian lana erraz aurki daitekeela entzun dugulako etorri gara hona, horixe nahi dugulako, lana. Baina ez da horren erraza. Gainera, bakarrrik zatoz, eta bakardadea oso gogorra da. Astuna da, eta pisu hori eramatea kosta egiten da.

Hasierak txarrak izaten dira beti. Baina agirien kontu honekin, aurrerantzean ere, etorkinarendako zaila izango da lan duina aurkitzea.

#### Laguntzarik izan duzue hemen lana bilatzeko?

Caritas elkarteak, adibidez, asko lagun du digu.

Begarako Caritas beti egon da gertu laguntzeko eta askok hari esker lortu dugu lana. Nik, adibidez, bi pertsona zaintzen ditut egunero: goizetan bi ordu eta arratsaldeetan beste bi egiten ditut. Ez nago etxean bertan, ez dut lo egiten lana egiten dudun etxeetan, eta alde horretatik zortea dut. Nahiago dut horrela, gainera; bestela ezin izango nuke semea nirekin edu-



OIHANA ELORTZA

## Maria Rosangela De Jesus

ETORKINA

**“Etorkinen artean, emakumezkook errazagoa dugu lana aurkitzea, baina zaila da guztiondako”**

### MESPRETUXZKO AURPEGIAK

**“Gure aldean itxiak dira hemengo herritarrak, baina jende alai dago hemen ere; hala ere, mespretxuzko aurpegiarekin begiratu izan didatela ere konturatu naiz”**

### ETORKINEN EGOERA ERREGULATZEKO LEGEA

**“Portugesez bidali dizkidate agiriak Brasildik, eta orain esan didate gaztelaniaz daudenak onartzen dituztela bakarrrik; ez da batere erraza agiriak lortzea”**

ki. Hala ere, etorkinak ez du lana hautatzeko aukera askorik izaten eta zaintzen duten pertsonaren etxean lo egiten dutenak ere asko daude.

Nire lagun gehienek dute lan bera: pertsona nagusiak zaindu edo etxeko lanak eta garbitasunezko lanak egin, bestela.

#### Nolakoa da Begarako Caritasen elkarte kooperatibo hori?

Sierbetan dago egoitza, eta zerbitzu asko ditugu hemen. Garbiñe medikua astean birritan etortzen da, adibidez; Ibanek

diru kontuak ondo egiten laguntzen digu, baita agiriak lortzen eta eguneratzen ere; hark esaten digu zer agiri lortu behar dugun gauza bat edo beste eskatzeko; Paulina ere edozertan laguntzeko gertu dago, baita Xabier apaiza ere.

Horiez gain, beste bi begirale ere badaude eta ikasketekin eta eskulanekin lagun-tzen digute biek.

#### Tailerrak ere egiten dituzue, ezta?

Rosa ekuadortarrak, esaterako, oso esku ona du eskulanetarako.

Orain, adibidez, orratza eta koloreetako hariekin bururako gorroak eta leporako bufandak nola egin ari zaigu erakusten. Hotza joaten denean, berriz, beste zerbait egiten ikasiko dugu: izena duten esku-muturrekoak, belarritakoak, lepokoak eta ileetan jartzeko apaingarriak.

#### Zenbat lagun elkartzan zarete?

Dezente. Zapatuetan 10-15 bat lagun elkartzan gara. Herrialde askotakoak, gainera; Boliviakoak, Kolonbiakoak, Ekuadorkoak, Brasiloak...

Bilera horiek, gainera, balio digute gure artean hitz egiteko, elkarrekin egoteko eta bakardadea apurtzeko.

#### Lortu dituzu agiriak?

Tramitean ditut, gehienok bezala. Gobernuak hartu duen erabakiarekin ez da horren erraza agiriak egitea. Zure herrialdean eskatu behar dituzu dokumentu asko, eta horrek luze jotzen du.

Nik, adibidez, Brasilen eskatu ditut. Agiri penala portugesez idatzita bidali didate, eta orain, hemengo gobernuak esan dit portugesez idatzita baldin bada go ez duela balio, gaztelaniaz idatzita egon behar dutela eskatutako agiri guztiek. Orain, berriro eskatu behar dut agiri penala, eta eskatu eta bidali orduko denbora luzea pasako da. Prozesu horrek asko atzeratzen du agirien tramitazioa.

#### Inoiz nabaritu duzu mespretxu aurpegiarekin begiratu dizutela?

Bai. Beste herrialde batekoa naizelako, azala ilunagoa dudalako edo ez dakit zergatik, baina nabaritu ditut begirada horiek. Espainiako jendea atsegin dut, jende alai ere badago, baina mespretxuzko aurpegiak ere ikusi ditut, eta horiek ez zaizkit horrenbeste gustatzen.

#### Gustatzen zaizu Bergara?

Bai, asko. Jendea presaka bizi da, eta horretara ez naiz oraindik ohitu, baina tira. Gainera, ez dut ulertzen. Brasilen hemen baino lan handiagoa egiten nuen nik. Han jendeak goizetik iluntzea arte egiten du lan egunero, hemen baino ordu gehiago, eta hala ere, presa handiagoa du hemengo jendeak hangoak baino.

Bestalde, horren hotz handia izatera ere ez naiz ohitu.

#### Zailtasun berak dituzue emakume etorkinak eta gizon etorkinak lana aurkitzeko?

Ez dakit zer erantzun, baina esango nuke emakumeok errazago dugula. Gehienok lan mota bera aurkitzen dugu, baina lana da. Gizonezkoek zailagoa dutela uste dut. Eraikuntzan aurkitzen dute lana, akaso, baina lantegietan lan egiteko agiriak eskatzen dizkiete eta ez dute agiri-rik. Ekuadorko lagun baten anaiak, adibidez, urtebete darama Bergaran, baina oraindik ez du ezer aurkitu.

#### Pentsatu duzu egunen batean Brasilera bueltatzea?

Ez dakit. Hona etorri nintzenez ziur nengoen egunen batean bueltatuko nintzela, diru pixka bat irabazitakoan nire herrira joango nintzela esaten nion neure buruari. Orain, ordea, semea hona ohitzen ari da. Gaztelaniaz oso ondo moldatzen da eta euskaraz ere egiten du, gutxiago izan arren. Lagunak ere egin ditu.

#### Ospatu duzu Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna?

Brasilen Amaren Eguna ospatzen dugu, inoiz ez emakumearen eguna. Berdin gertatzen da Bolivian eta Ekuadorren ere. Maiatz aldean izaten da Amaren Eguna eta egun horretan gizonak egiten ditu lan guztiak eta emazteari ez dio lanik uzten. Eta eguna bukatu baino lehen, afari ederra egiten dute senitarteko guztiek.

Emakumearen Eguna, berriz, ez dugu inoiz ospatu. Ezta aurten ere. Ez gara enteratu ere egin Emakumearen Eguna ospatzen denik.

## Gutunak

Euskara elkarteen  
Batzar Nagusiak edo  
Asanbladak

Oso ondo dago bazkide izatea, kuota ordaintzea, ekintzak antolatzeke lan-taldeetan jardutea, juntakide izatea, ekitaldietan parte hartzea edo elkarrearen alde borrokatzea. Hori dena behar da euskararen erabilera zabaltzeko. Baina, non ziren Txatxilipurdi, Ekin eta AED-ko 900 bazkideak batzar nagusi egunean? Ala ez da zure elkarrea? Ala berdin zaizu zein diren hartzen diren erabakiak eta norabideak?

Egia da euskara egunero erabiliaz gozatzeko eta garatzeko dela eta asanbladara joate hutsak ez duela konpromisoa bete dela esan nahi, baina urteko elkarrekin agerpen hori ere norbanakoen konpromisoa betetzea da, banaka ez ezik komunitate bezala ere bagarela adierazteko modu bat.

JOXEMARI MUXIKA (AED-KO BAZKIDEA)  
Arrasate

Aranzadi Ikastolaren  
oharra

Aranzadi Ikastolak Bergarako herria-ri hainbat argibide adierazi nahi dizkio herriko beste ikastetxe batek, San Martin Agirre eskolak, haur eskola nahi duela-eta, azken egunotan prentsan agertutako gutunaren gainean:

Bergarako herrian hiru ikastetxe daude irakaskuntzazko zerbitzua ematen. Herrian hiru titulartasun ezberdineko irakaskuntza izateke mesede eta onura baino ez dio ekartzen biztanleriari, eskaintza zabala eta lehiakorra bere esku ipiniz. Gurasoek aukera guztien artean hautua izan behar dute. San Martin eskolak dioten moduan orain arte instituzioen erantzunik ez badu jaso, eskolak berak ikusiko du zein baliabide erabili bere eskakizunetarako, kaleko errebindikazioak barne.

Alabaina, ez diogu berdin irizten egiten duen planteamenduari, alegia, ustezko zentzuzko konponbide bakartzat Martinez de Irala eraikinaren erabilera eskuartzea proposatzeari.

Martinez de Irala eraikina herri onurarako erakunde batek erabiltzen du gaur egun (Eusko Jaurlearitzaren 2000ko irailaren 4ko izendapena) irakaskuntzazko zerbitzu publikoa emateko: Aranzadi Ikastolak. Ikastola, 1972an herri ekimenetik sortua, gure bailaran horren errotua dagoen kooperatiba izaera duena, 1982tik erabiltzen du eraikin hori, Udalaren eta Eusko Jaurlearitzako Hezkuntza Sailaren baimen guztiekin. Aldi berean, eraikin horretan

San Martin eta Ipintzako ikasleentzako jangela dago, eta Udalak ere eskola orduz kanpo zerbait jarduerara egiteko erabiltzen du. Gimnasia lekuaren erabilera, berriz, bi zentroek eta Udalak txandakatu egiten dute, orain arte inolako arazorik gabe.

Beraz, San Martin eskolak esaten duenean "beharra balego, hezkuntzako beste jarduerara batekin konpartitu genezake" ez da errealitate osoa islatzen ari. Beharra badago, orain, hipotesirik gabe, azken 23 urtetan egon den moduan.

Konpon beza San Martin eskola publikoak jabe duen botere publikoarekin daukan liskarra. Bere nahiek, baina, Martinez de Irala eraikinaren gaur egungo hezkuntza jarduerara kontuan izan dezatela.

ARTEZKARITZA KONTSEILUA  
Bergara

## Sekulakoa!

Eguaztenean Korrika 14 gure ibarretik igaro zenean ikusitakoarekin guztiz hunkituta, AEK eta Korrikaren partetik eskerrik beroena eman nahi diegu euskalgintzako talde guztiei, parte hartu duten erakunde guztiei eta, nola ez, korrika egin zenuten milaka pertsonen, Arrasateko kaleak nola bete ziren ikusteko aukera denok izango dugu Goienari esker, baina Euskal Herriko beste lekuetan ezin dute sumatu ere egin hemengo norainokoa den. Hori dela-eta, eskaeratzeko bat daukagu argazkiak dute-entzat; *Korrika.org* webgunean, argazkiak bidaltzeko gune bat duzue. Ea nola-ko ekarpenak egiten dituzuen.

Mezu hau ahalik eta jende gehienari bidali, bilduma ikaragarria egon behar du-eta. Berrero ere eskerrak emanik, domekara arte Bilbon Korrika 14 jaietan.

OSKAR ELIZBURU  
(ERDU AEK EUSKALTEGIA)  
Arrasate

## Niri gustatu zait

Azkenaldian entzun eta irakurri izan adut behin baino gehiagotan Bergarako goiko plaza, epaitegi aurreko plaza berritua, oso zatarra geratu dela. Nik gustuko dut, niretako ondo geratu da. Batzuek kritikatu dute jarri dituzten farolak, modernoegiak direla eta ondoko beste batzuekin bat ez datozela esanez. Eta, zer? Niri txukunak iruditzen zaizkit. Hala ere, aitortu behar dut lehen ere herriko txokorik politenetakoa zela goiko plaza eta badirela beste toki herrian batzuk txukuntzeko premia handiagoa dutenak.

OSKAR ELIZBURU  
Arrasate

## Hemeroteka

Mondragoetik bueltan,  
Euskaltzaindia gorabehera

Atzo arte ez nuen jakin izan eztabai-ada luzatu dela Anjel Lertxundi eta Jose Luis Lizundiaren artean, lehenak idatzitako zutabe baten harira. Irakurria nuen zutabea, eta baita Lizundiaren lehen erantzuna, baina ez atzetik etorri ziren beste biak. Atzo arte.

Egia esan, irakurri nuenean Lizundiaren lehen erantzun hori, pentsatu nuen harrosko zetorrela euskaltzaina. Ez zuen, bada, salatu Lertxundi, oriotarra "asko ezagutzen ez dituen gaietan" sartzen zelako? Bigarren artikuluarri, berriz, beste tonu bat dario, baina gurasokeria puntu batekin.

Niri ere, "ez dut blogik irakurtzeko astirik" esanda, hasi zait azaltzen ez dakit noizko erabakia, aurrekariak garbi izan ditzadan. Eskertzen diot Lizundiari ahalgina, baina Euskaltzaindiaren erabakiak gorabehera, nik garbi daukat Mondragoen jaio nintzela, horrela deitzen diotela nire gurasoek, horrela sentitzen dudala nik, eta horrela segituko dudala deitzen, nahiz eta onartzen dudana Arrasate ere hor dagoela.

JOXE ARANTZABAL  
'Faroa' bloga

Vanessa eta Begoña:  
gorputzak salatu  
egiten gaitu

Aurrekoan *Sorginen Laratza* ikusi Anuen, zati bat. ETBko bi berriemai- le gazte ziren eguneko gonbidatuak: Vanessa Sanchez eta Begoña Cortina. Lehena berriemaiela Parisen, eta bigarrena, Londresen.

Bukaeran ezusteko bat eman zieten biei: morrosko bat hurreratu zitzaie, suhiltzaile jantzita. Eta han non hasi zitzaie strip-tease egiten mahai gainean. Begoña Cortinak ez zekien zer egin, eta mutila hurbildu zitzaionean xirri batzuk egin ziezazkion, ematen zuen neska leher- tzeke zorian zegoela. Ez zuen ezer esaten, baina haren aurpegiak eta gorputzaren ke- nuek garbi adierazten zuten disgustura zegoela. Vanessa, oster, hobeto moldatu zen, umore piska bat erabilita.

Ulertzen dut Begoñaren jarrera, segu- ru bainago hura ez zela joan programa- ra mutil baten ipurdi oliotzatua fereka- tzer. Eta pena eman zidan neska hura sufritzen ikusteak..., baina *Sorginen Laratza*-ra doan jakin beharko luke zer aurki lezakeen hor.

JOXE ARANTZABAL  
'Faroa' bloga

## Saskia bete porru

Hauteskundeak datozela esaten ari zaizkigu, baina ez datoz. Oraindik ez, behintzat. Tartean, opor labur batzuk daude, eta uholdeen kontrako dike baten lana beteko ahal du egun horien hurbil- lak! Azken egunotako egunkariak hau- teskundeak iragartzen ari badira ere (egunkariak oso abilak dira jendearen benetako interesak ezkutatzeko), dator- kina udaberria da. Eta daukaguna, eguz- ki-gosea. Zorionak parentesia labur baten itxura halako bat izaten baitu beti, har dezagun bada atsedean, igandeko El Pais egunkarian ikusten genuen argazkiko Atutxa jaun baratzainak bezala sorotan zut, bejondeizula zuri!. Saski bat zeraman eskuan, oporren bueltan etorriko zaigu- naren abisua emanez: saski barruan, aza- lore trinko eta porru lerdene menestra.

Har dezagun, bai, atsedean, azalore eta porru gisako metaforez gainezka dator- eta oporren ondorengo saski-nahaskia.

ANJEL LERTXUNDI  
'Berria'. 2005-03-16

## Aukera Guztiak

Boto-emaileak, joera nagusi moduan, Ezker Abertzalearen esparru sozio- logikotik gerturatuko zaizkio Aukera Gu- ztiak taldeari. Indar eta babes hori Euskal Herriaren herri etorkizuna modu demo- kratikoan eraikitzearen zerbitzura era- biltzen den neurrian guztiz proiektu bai- korra izango da, eta ekarpen garrantzi- koa bilakatuko da Ezker Abertzalearen eraldaketan. Ezker Abertzalearen etor- kizuna hor kokatzen da. Baina, prozesu ez-demokratiko baten tresna huts bihur- tzen bada, mesede eskasa egingo dio demo- kraziari, Euskal Herriari eta Ezker Aber- tzaleari. (...) Ikusteke dago Aralarri nola eragiten dion, ikusteke EAJ-EA koali- ziorantz joan zitekeen botoan eraginik duen eta, azkenik, Batasunaren boto- emaileentzat benetako aukera bilakatzen den. Aurkezteko aukerarik baldin badu- te, galdera hauen erantzuna ezagutuko du. Espainiako Estatuak erabakiko du orain arteko bidean jarraitu ala demokraziari aukera bat eman auzia konpontzeko.

XABIER BARANDIARAN  
'Berria'. 2005-03-15

## GOIENKARIA eguaztenean

Aste Santuko oporrak direla-eta, dato- Arren astean GOIENKARIA eguazte- nean argitaratuko da, herri-edizio barik.

GOIENKARIA

**Goienkaria**  
DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA  
Eneko Azkarate  
ERREDAKZIO KONTSEILUA  
Edorta Mendietza,  
Miguel Angel Elkoroberezar,  
Josemari Veiz de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA  
Agurtzane Gaintzarain,  
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa  
SAILETAKO ARDURADUNAK  
Iñaki Iturbe (Diseinua)  
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA  
Mireia Larrañaga, Natali Martínez,  
Izakun Bolinaga, Ixaso Berezibar,  
Imanol Elortza, Amaia Mundiñano  
PRODUKZIOA  
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA  
Sergio Azkarate  
HARPIDETZA ETA BANAKETA  
Marta Leturia

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak  
LEHENDAKARIA  
Estepan Plazaola  
ZUZENDARI NAGUSIA  
Iñazio Arregi

# Zuhaitz Ezpeleta faborito, biharko Oñatiko duatloian

Antolatzaileek espero dute bihar 160 lasterkari inguruk esku hartzea

XABIER URTZELAI

**B**ihar, zapatua, 16:00etan hasiko dute Oñatiko duatloiko 14. edizioa. Antolatzaileek joan den urtean baino 30 lasterkari gehiago espero dituzte. Faboritoren gainean galdetuta, Zuhaitz Ezpeleta da nabarmenena.

Joan den urtean Jon Arotzena aurreratu zitzaion Bedoñakoari, baina antolatzaile lanetan dabilen Jesus Cantero oñatiarrak esan digu Arotzenak oraindik ez duela izenik eman, eta aurreko bi duatloietan ere ez dela egon. Arrasatekoak, berriz, ez du Oñatiko hitzordua galtzeko asmorik, eta joan den asteburuan erakutsi zuen gorputzaldi onean dagoela, lehena izan zen-eta Barakaldoko duatloian. Oñatiko antolatzaileek ere aipatu dute Ekaitz Osa indartsu dagoela, eta ezin ahaztu, beste askoren artean, Iker Larrea. Antxintxikakoa lehenengo hamar sailkatuen artean egon da orain arteko lasterketan, eta bihar ere ez da urrun ibiliko. Horiek, baina, ez dira lasterkari bakarrak izango: "Urtero etortzen dira Pau inguruko bi lagun, baina horiek maiatzean egoten dira oso ondo. Esango nuke oraindik goiztxo dela euren dako; ikusi egin behar, baina".

## IZEN EMATEA ZABALIK

Jesus Canterok eman digu orain arteko izenemateen berri: "Eguazten gauerako 140 lasterkari genituen, baina azkeneko egunetan ere etortzen da jendea, baita lasterketa egunean ere (25 euro ordaindu beharko dira). Alde horretatik, 18 lagun ditugu federatu



Joan den urtean Arotzenak eta Ezpeletak leiha polita izan zuten.

**"Jendeak ez du aldaketarik gura, lasterketa ondo ezagutzen duelako eta erreferentziak gura izaten dituelako"**

**"Oñatiko Triatloi Taldeko hamalau lasterkari inguru izango dira, eta Antxintxika taldeko beste hamabi lagun etorriko dira"**

barik parte hartuko dutenak. Horiek, baina, eguena zuten izena emateko azken eguna, aseguru berezia egin behar zaielako".

Lasterkari horien artean, 30 bat izango dira ibarrekoak. "Oñatiko taldeak hamalau lasterkari inguru izango dira, eta Antxintxikatik beste hamabi etorriko dira. Horiei gehitzen badiegu federatu barik dauden bi edo hiru duatloilari, 30 inguru izango dira ibarrekoak", dio Canterok.

## ALDAKETA NABARMEN BARIK

Joan den urtearekin alderatuta, antolatzaileek ez dute aldaketa handirik egin gura izan: "Jendeak ez du gura aldaketarik, ez parte hartzen dutenek eta ezta lasterketa ikustera etortzen direnek ere. Lasterkariak erreferentziak gura izaten dituzte, ibilbidea ondo ezagutzea, eta ikusleek ere badakite non ikusi gura duten lasterketa, ondo ezagutzen dute eta proba hori".

Hala, lasterketa Oñatiko udaletxearen aurrean hasiko da, eta herri barruan egindako ibilbideari (4 km) bi itzuli eman eta gero, udaletxe aurrean hartuko dituzte bizikletak.

Bizikletako ibilbidea ere urterokoa izango da, baina Zubillagako saihesbide berria estreinatuko dute. 40 kilometro egingo dituzte bizikleta gainean: Oñati, Zubillaga, Elorregi, Bergara, Antzuola, Des-karga, Legazpi eta Oñatira buelta.

Horren ondoren, korrika egiteko zapatilak berriro ere jantzita, herri barruko ibilbideari beste itzuli bat emanda amaituko dute duatloia.

Sariei dagokienez, Oñatiko Triatloi Taldeak 720 euro banatuko ditu saritan, eta lehenengo sailkatuak 180 euro poltsikortuko ditu.

## Kirolabur

### MENDIKO ESKIA/PIERRA MENTA

Joan den astean egin zuten Alpeetan Europan dagoen Mendiko eskiko lasterketa gogorra, Pierra Menta. Euskaldunetz osatutako bost bikotek hartu zuten esku lau eguneko proba gogorrean, horietako bi ibarrekoak. Mutiletan, Oñatiko Aitor Otxoak eta Arkaitz Letamendik osatu zuten bikotea (44. postuan), eta emakumeetan, Isa Casado eta Leire Ezpeleta arrasatearrak izan ziren (14. postuan).

### FUTBOLA/PREFERENTEA

Oraingo asteburuan Aloña Mendik bakarrik jokatu du etxean. Aitor Oruetaren mutilek galdu ezin duten norgehiagoka jokatu dute Oriokoren kontra (domekan, 16:30ean). UD Ak jardunaldi gogorra izango du domekan EHU taldearen kontra (16:00etan, Zubietan). Mondrarendako ere ez da izango erraza Zarautzik puntuak ekartzea (zapatuan, 16:30ean). Azkenik, bergarrek daukatena eta gehiago eman beharko dute Hondarribian (zapatuan, 16:30ean).

### XAKEA/ARLUTZ ONDO, ARRASATE BEHERA

Joan den asteburuan jokatu zuten Euskadiko gorengo mailako ligako azken jardunaldia, eta aurreikuspenak beteta, Arrasateko San Andres Xake Taldeak kategoria galdu zuen. Ibarreko beste ordezkariak, Aretxabaleako Arlutz taldeak, berriz, ondo etsi dio mailari. Laster hasiko dira bakarkako torneoak, eta Arrasatekoek hortxe gura dute denboraldia txukundu.



## Ibarreko gaztetxoak, El Pitarroy eski alpetarreko lasterketan

Joan den asteburuan, Cerlerko eski estazioan Espainiako alebin mailako lasterketa egin zuten. 8 urteko Ibai Linazisoro Molina bergararra lehena izan zen, eta Eskoriatzako Iñaki Salaberriak ere lan polita egin zuen, aurrealdean sailkatuta. Argazkian, ibarreko bi eskiatzaileak Mateo Szul Lipski taldekidearekin.



UNITED COLORS  
OF BENETTON.

Maalako Errabala, 13  
ARRASATE  
943 79 50 78

**Edozein premiarako:**

- Antzutasuna
- Erditzeak
- Antisorgailuak
- Menopausia
- Ekografiak (4D)
- Titietako gaixotasunak
- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Hezur dentsitometria

**Zure zerbitzura:**

- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otorra
- Jose M. Gomez
- Ainhoa Larrea
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- J. Rodriguez
- Mikel Gorostidi
- Mikel Arroyo

CG

**CONSULTORIO  
GINECOLOGICO**

Policlinica Gipuzkoa

**ARRASATE****Zerkaosteta 17  
943 79 20 18**

Donostia: 943 30 82 08

Eibar: 943 12 10 2

Irun: 943 61 78 88

**gasteizon**centro comercial abierto  
merkataritza-gune irekia**GASTEIZEN HITZORDUA DUZU**

www.gasteizon.com

**2005EKO MARTXOAREN 18tik 23arte**Florida  Guridi**CINES GURIDI ZINEMAK****"ROBOTS" (ESTRENALDIA)**

5-6,50-8,35-10,30

**"BLADE TRINITY"**

5,30-8-10,30

**"EL ESCONDITE"**

5,30-10,30

**"LA PASION DE CRISTO"**

7,45

**"SAW" ESTRENALDIA**

5,30-8-10,30

**"HITCH - ESPECIALISTA EN LIGUES"**

5,30-10,30

**"EL SECRETO DE VERA DRAKE"**

8

**"EL HUNDIMIENTO"**

5-7,45-10,30

**"MILLION DOLLAR BABY"**

5-7,45-10,30

Florida  Guridi**CINES FLORIDA-GURIDI ZINEMAK****"HABANA BLUES" ESTRENALDIA**

5-7,45-10,30

**"LA CASA DE LAS DAGAS VOLADORAS"**

5

**"BROTHERS"**

7,45-10,30

**"DESCUBRIENDO NUNCA JAMAS"**

5-10,30

**"HOTEL RWANDA"**

7,45

**"ENTRE COPAS"**

5-7,45-10,30

**"EL PENALTI MAS LARGO DEL MUNDO"**

5,30-8-10,30

**"LAS TORTUGAS TAMBIEN VUELAN" ESTRENALDIA**

5,30-8-10,30

**"LOS CHICOS DEL CORO"**

5,30-8-10,30

Florida  Guridi**Aprobetxa ezazu Florida eta Guridi  
zinema-aretoen eta Bocatta-ren  
primerako menua:**

Bocatta 1

**+** edari 1

zinemarako sarrera 1

**7 euro****Bocatta®****"Bocatta onenak, ikusle onenentzat"**

# EZKONTZAK

Egubakoitza / 2005eko martxoaren18a / GOIENKARIAren gehigarri berezia




Baiezkoa emateko  
sasoia heldu da

AZALA: MAITENA ARANA/ ARGAZKIA: MARIA JESUS



Erdiko kalea 14 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 46 94





# banak importa



LASTER INAUGURATUKO DUGU

## BANAK IMPORTA ARRASATE

ORAIN, ALTZARIAK INPORTA IZANGO ZAIZKIZU

BANAK IMPORTA ARRASATE - Zigorrola, 1. 6-10 Pabilioiak  
20500 Arrasate - Gipuzkoa - Tel.: 943 77 14 92



*Blumarine*

# B BASTER

Irala z/g, BERGARA 943 76 10 08

■ 2004KO DATUAK

# Elizaz 149 bikote eta zibilez 142 ezkondu ziren ibarrean

MARIA AGIRRE

**A**urten ere bikote asko ezkonduko da, batzuk elizaz eta beste hainbat zibilez. Apurka-apurka ezkontza zibilen kopurua haziz doa, zenbakiak erakusten duten moduan. Iaz, ibarrean, 142 bikote ezkondu ziren zibilez, eta 149 elizaz.

Eustat, Euskal Estatistika Erkundearen arabera, 2004ko lehenengo hiruhilekoan, ezkontza zibil gehiago izan ziren 2003ko datuekin konparatuz gero. EAEn 1.216 ezkontza izan ziren 2004ko lehen hiruhilekoan, eta horietatik 792 zibilak izan ziren; 424, berriz, kanonikoak. Duela urte bi ere jorra hori izan zen, baina iaz zertxobait handitu zen.

Debagoieneko datuei begiratuz gero, ezkontza zibilak indarra hartzen doazela esan daiteke, baina elizaz ere asko ezkontzen dira. Elgetan, iaz, ezkontza bi izan ziren; horietako bat zibilez eta beste elizaz. Aretxabaletan, 14 ezkontzatatik, 12 zibilez eta bi elizaz izan ziren. Antzuolan, 15 ezkontzatatik 11 zibilez eta 4 elizaz. Eskoriatzan, 9 elizaz eta 5 zibilez. Arrasaten 78 guztira, 48 zibilez eta 30 elizaz. Bergaran ere ezkontza zibilak gehiago, horietako 27 izan ziren, eta 19 ezkondu ziren elizaz. Leintz Gatzagan, berriz, 21 ezkontza izan ziren, 18 elizaz eta hiru baino ez zibilez. Aipatu beharrekoa da Dorletan ezkondu nahi dutelako joaten



GOIENKARIA

Bikote askok erabakitzen dute elizaz ezkontzea, baina gero eta gehiago dira zibilez ezkontzeko erabakia hartzen dutenak.

direla bikote asko Leintz Gatzagara. Arantzazu dela eta, Oñatiko kasua ere antzekoa da. Guztira 88 ezkontza izan ziren iaz; 60

elizaz eta 27 zibilez, eta bakarrik koranikoz. Aramaiori dagokionez, 14 bikote ezkondu ziren; 8 zibilez eta 6 elizaz.

**EZKONTZA ZIBILAK UDALETXEETAN**  
Zibilez ezkontzen diren askok udaletxean ezkondu nahi izaten dute, nahiz eta lehendabizi epai-

**Aretxabaletan 14 ezkontza izan ziren iaz. Horietatik 12 zibilez izan ziren**

**Oñatin 88 bikote ezkondu ziren, eta horietatik 60 elizaz ezkondu ziren**

**Ibarrean gutxi dira ezkondu aurretik ondasunen banaketa egiten dutenak**

tegira joan behar den. Ondoren, epaitegitik ziurtagiri bat bidaltzen dute udaletxera. Ezkontza egunean, alkatea eta lekuko bi bertan direla, kodigo zibileko hainbat artikulua irakurri eta bikotea ezkondu egiten da. Horretaz gain, bakoitzak erabakitzen du ekitaldi horretan zer gehiago egin, hau da, musika edo irakurketa bereziren bat. Gainera, eskumena alkatearena bada ere, bikoteak eska dezake zinegotzi jakin batek ezkontzea. Arrasateko Udalean, bestalde, zibilez ezkontzen diren kopurua handia dela eta, gobernu batzordeko kideen artean txandatzesistema ezarri dute. Hala, zapatu guztietan ez zaio alkateari egokitzen bikoteak ezkontzera joan beharra.

#### ONDASUNEN BANAKETA EGIN

Ezkondu aurretik, edo ezkondu ondoren, notarioarengana joan eta ondasunen banaketa egiteko aukera du bikoteak. EAEn, legez, irabazpidezko ondasunen sistema ezarrita dago. Hau da, bikotearen irabaziak bienak izango dira, herentziaz jasotzen dena eta ezkondu aurretik bakoitzak zituen ondasunak salbu. Ondasunen banaketa egitea erabakiz gero, bestalde, bakoitzaren ordainsaria berea izango da. Banatzea erabakiz gero, prozesua errazagoa izaten da ondasunen banaketa eginda badute. Katalunian, berriz, alderantziz da. Legez, ondasunen banaketa egiten da bikotea ezkontzerakoan. EAEn, hori egiteko aukera badago ere, abokatuen esanetan oso gutxi aukeratzten dute bide hori hartzea.



# LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

## ■ EMAZTEGAIENDA KO ARROPA ETA OSAGARRIAK

# Norberaren estiloarekin bat egingo duen soinekoa

M.A.

**G**onbidatu guztien ikusmiran izaten da emaztegaiaren soinekoa. Hilabeteak lehenago erabakitzen da zein soinekorekin ezkondu. Beraz, udaberri-udan ezkontzera doazenek aspaldi izango dute soinekoa erositara. Hona hemen joerak.

Aurtengo denboraldian tradizioarekin hautsi nahi dute diseinatzaileek; hala, kolore zuriaz gain, beix eta urre-koloreko soinekoak ikusiko dira. Hala ere, soinekoak xumeak izango dira, eta emakumearen gorpuzkera agerian uzten duten horietakoak. Diseinatzaile guztiek soineko estuak proposatu dituzte. Osagarriak ere oso garrantzitsuak izango dira, dotoretasuna emango baitiote emaztegaiari. Bordatutako gerrikoak, paparrek orratzak, eskularruak edo tula eramatea aukera daiteke, besteak beste. Hala ere, apaingarri askorik ez janztea, eta bakoitzaren estilo eta gorpuzkerarekin bat datorren soinekoa aukeratzea izaten da onena.



## ZURIAZ GAIN BESTE KOLORE BATZUK

**E**maztegaiaren soinekoetan zaila izaten da kolore zuriari tokia kentzea, baina kolore beix eta urre-koloreko soinekoak ere ikusiko dira. Hori bai, soinekoak estuak izango dira, eta emakumearen gorpuzkera agerian geratuko da. Eskote handiko soinekoak izango direla eta, apur bat estaltzeko txaketa txikiak jantz daitezke. Gainera, eguraldiagatik, gurean beharrezkoak izaten dira.



## PARPAILADUN SOINEKO DOTOREAK

**D**otore baina xume joan nahi dutenek parpailadun soinekoren bat aukera dezakete. Parpailak soinekoaren zatiren batean joan daitezke, baina soineko guztia ere izan daiteke parpailaduna. Horrelakoetan, ez da komeni apaingarri askorik janztea, parpailak berak asko janzten baitu. Mota horretako soinekoak oso egokiak izaten dira udaberri-udan ezkonduko direnendako.




## BARRUKO ARROPA ONDO AUKERATZEA KOMENI

**B**arruko arropa ondo aukeratzea komeni da, eta ez da igarri behar. Mediak erosterakoan, gerriraino iristen ez direnak hartzea komeni izaten da, kasu gehienetan. Ez da zaila barruko arropa egokia aurkitzea, hainbat dendatan emaztegaiendako barruko arropa izaten baitute. Gainera, soinekoa probatzera goazenean, aukeratu dugun barruko arropa eramango dugu.



## TAKOIAK GORPUTZA LIRAINTEZKO

**T**akoidun zapata edo sandaliak aukeratzea ezinbestekoa da, emakumearen gorpuzkera estilizatu egiten baitute. Hala ere, oso takoi altuak eramatea ez da komeni, horrelakoetara ohituta ez badago ibilera naturala ez duela atzemango baitaio emaztegaiari. Zazpi zentimetroko takoiak duten zapatak nahikoa izaten dira gorpuzkera liraintzeko. Takoiak, gainera, finak izaten dira.



## Guxtiz Eder Estetika Zentroa

Oraintxe da zure momentua

- Laserra (emakume eta gizonentzat)
- Aurpegirako tratamendu zoragarriak
- Solariuma (eguzkiak eskaintzen duen pribilegioa etxe ondoan)
- Era guztietako depilazioak: beroa, epela, elektrikoa
- Manikura eta pedikura

Zerbitzurik onena gure bezeroen esku



Kale Barria 29, behea (Orbea etxea, parke aldetik) 20560 Oñati Tel.: 943 78 01 46

**www.mjargazki.com**

We Use HASSELBLAD

**MARIA JESUS ARGAZKILARIA**

**Ezkontza Erreportajeak**

Bataioak  
Jaunartzeak  
Modazko Book-ak  
Estudioko Argazkiak  
IndustriaKo.....

Herriko Plaza 10 - Aretxabaleta 943-771255

**MARIA JESUS**

EUSKADIKO MODA ETA GIZARTE ARGAZKILARI ONENA 2004AN, AANFren ARABERA

**WWW.mjargazki.com**

Orain zure ezkontza erreportajea doan atera ahal zaizu!

Ezkontza erreportajeetan % 30 eko deskontua



■ SENARGAIEN DAKO ARROPA ETA OSAGARRIAK

# Kolore iluneko trajeak bai, baina tonu argiak aukeran

M.A.

**E**maztegiaren soinekoak bai, baina azkenaldian, senargaiaren trajeak garrantzia hartu du. Gehienek kolore iluneko trajeak aukeratzen dituzte, baina ausartendako kolore argidun trajeak ere badira. Egun horretan, gainera, gorbata ezin falta.

Senargaiaren janzkera aukeratzeko ere, behar den denbora hartzea komeni. Gaur egun, mota eta kolore askotariko trajeak aurki daitezke merkatuan. Hala ere, ibarreko senargai gehienek nahiago dituzte traje ilunak, urdin ilun edo beltzak. Kolore horiek gustuko dituztenak zortedun daude; izan ere, kolore beltzeko trajeak modan daude. Zertxobait gehiago nabarmendu nahi dutenendako, marra diplomatikodun trajeak gomendatzen dira. Eta azken horiek bezain modan daude zertxobait luzeagoak diren txakeak ere. Aukerak, beraz, ugari dira, eta, gainera, senargaiendako gero eta osagarri gehiago dago. Esaterako, gorbataren ordez, fularra.



## KOLORE ILUNEKO TRAJEAK MODAN

**U**rdin ilun edo kolore beltzeko trajeak puri-purian daude. Kolore horiek aukeratuz gero, alkandora argiagoo izatea komeni da. Esaterako, alkandora zuriak oso ondo konbina daitezke kolore iluneko trajeekin. Eta azken denboraldietan moduan, marra diplomatikodun trajeak ere modan daude. Trajea ez bada, alkandora marraduna aukera daiteke.




## AUSARTENDAKO KOLORE ARGIAK

**A**usartu beharra dago, baina betiko kolore ilunak alde batera utzi nahi dituzten senargaiak kolore argidun trajeak aukera ditzakete. Duda barik, kolore hori aukeratzen duten senargaiak gonbidatuen arreta erakarriko dute. Koloreei dago-kienez, gris argia, beixa eta berde argia daude modan. Gainera, gorbata eta txalekoa ere argiak izango dira.



## ORRAZKERA TRAJEAREKIN BAT

**B**atzuek ez diote duen garrantzia ematen, baina gizonezkoaren orrazkera ere kontuan hartu behar da. Trajearekin joaten direla eta, orrazkerak dotorea behar du izan. Aurten, ilea distiratsu eramatea modan egongo da. Horretarako, nahiko da ile-gogortzaile edo antzeko produkturen batekin ilea bustitzea. Bestalde, bizarra ondo moztua eramatea ezinbestekoa da.



## GIZONEZKOEN DAKO OSAGARRIAK

**O**inetakoetatik eta gorbataraino, gizonezkoek hainbat osagarri eraman ditzakete. Esaterako, gerrikoak trajea asko janzten du. Gorbatan, berriz, orratz bat jar daiteke, gehiago nabarmentzeko. Gainera, gorbata korapilo berezia egiterik ere bada, janzkerari modernotasuna emateko. Zapatak, bestalde, punta luzedunak izango dira, eta ilunak, baina distira handikoak.



*leku eta egun ahaztezinak*



**Etxe  
Aundi**

Jatetxea-Hotela\*\*

Torre Auzo, 9  
OÑATI (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 78 19 56

120 eta 250  
gonbidatuendako  
jangelak ditugu.

## ■ ANTOLAKETA

# Bihar bertan ezkonduko dira

M.A.

**E**zkontza antolatzeak lana dakar. Hainbat gauza lotu behar dira, eta garaiz hastea ezinbestekoa izaten da. Ezkontza zelan antolatu duten jakiteko, bihar ezkonduko den bikote batengana jo dugu. Urtebeteko lanak bihar ikusiko du fruitua.

Pozik topatu ditugu Jon eta Nerea. Bihar ezkonduko dira, eta ezkon-gaiek izaten duten urduritasuna sumatzen bazaie ere, pozik daude. "Azkenaldian ez dugu lo ondo egiten. Pitin bat urduri gaude, pentsatzen dena lotuta ote dagoen", aitortu digute.

Duela urtebete erabaki zuten ezkontzea oñatiar biek. "Lehenengo data erabaki genuen, eta

ondoren, jatetxera joan ginen tokirik izango ote zen jakiteko. Gainera, gonbidatuen behin-behinek zerrenda ere egin genuen. Ondoren, hiru edo lau hilabete ezer egin gabe egon ginen, eta jarraian, ezkondu egingo ginela esaten hasi ginen". Etxekoei lehenengo, eta lagunei ondoren, albistearen berri ematen hasi, eta Jonen esanetan, "orduaz hasi zen benetako presioa". Azken zortzi hilabeteetan, ezkontza izan da hizketagai nagusi.

Jon eta Nerea ezkontzen inguruan antolatzen diren azoketan izan dira, ideiak hartzeko. "Eibar, Bilbo eta Gasteizen egin diren azoketara joan gara. Ez dugu ezer berezirik erosi edo hitzartu, baina ideiak batzuk hartzeko ondo etorri zaizkigu. Esaterako, gonbidapenen txartelak egiteko aukera mordo zegoela ikusi genuen. Eta egia esan, gonbidapenak auke-



MARIA AGIRRE

## JON IGARTUA ETA NEREA MARKULETA / OÑATI

**B**ihar, martxoak 19, ezkonduko dira Jon eta Nerea oñatiarrak. Arratsaldeko ordu batean, San Lorentzoko ermitara joango dira, elizaz ezkontzeko. Ondoren, Etxe-Aundi jatetxean bazkaria egingo dute 150 gonbidatuekin. Astelehenean, berriz, eztei-bidaia hasiko dute. Mexikora joango dira. Duela urtebete pentsatu zuten ezkontzea, eta lehenengo eguna zehaztu zuten. Segituan, jatetxera joan eta egun horretan bazkaria egitea posible ote zen galdetu zuten. Baiezkoa jaso ondoren, ezkontzaren antolaketan murgildu ziren. Azken zortzi hilabeteetan egin behar ugari izan dute.

### Lehenik eta behin jatetxera joan ziren bazkaltzeko tokirik izango ote zen galdetzen

ratzen pasa dugu denbora luzean. Aukeratzen, eta ondoren, gonbidapenak gutun-azoketan sartzen. Gonbidapenak, berriz, Gabonetan banatu genituen. Familiartekoak ikusteko sasoa izaten dela eta, garai hori aprobetxatu genuen

gonbidapenak eskura emateko. Lan handia izaten da hori ere, eta Gabonetan egitea ondo etorri zitzaigun".

Jantziak aukeratzea izan zen beste egin beharretako bat. Nerea azaroan hasi zen soinekoa begiratzen, eta aitortzen du pitin bat berandu izan zela. Hala ere, segituan aukeratu zuen, baita senargaiak ere. Horri jarraituz, argazkilariarekin harremanetan jarri, eta beste hainbat detaile lotzen joan dira. Baina bada aurrez lotu ezin duten zerbait: eguraldia. "Eguraldi ona egitea nahi dugu, eta arrautzak eramango dizkiegu

### Etxean albistearen berri eman ondoren, benetako presioa hasi zela esan digute

mojei. Azkenaldian, gainera, elurra egin du, eta horrek are eta urduriago jarri gaitu".

Eguzkia edo euria egin, bihar senar-emazte bihurtuko dira Jon eta Nerea. Zorionak, bioi, eta ondo pasa bihar.



**CORTE BLANCO**  
H O M B R E

*Senargaiak 2005*

*Ezkontza Trajeak*  
*Kolekzio Berria*

*Senargaiak,*  
*Aitabitziak*  
*eta Gonbidatuak*  
*Lehenak Gipuzkoan*



TRIUNFO, 3 • DONOSTIA      ESKLUSIBAN GURE BEZEROENTZAT





**LILURA**  
EDERTZE INSTITUTUA

Bidekurutzeta 7, 1a  
Tel.: 943 76 31 71  
20570 BERGARA

18 €

DESKONTU BONOIA

Martxoaren 18tik 23ra,  
izterondoan eginiko  
laser bidezko  
depilazioaren lehen  
saioan.

**Aurpegirako  
eta  
gorputzerako  
laser bidezko  
depilazioan  
espezialistak gara**



## LASA jatetxea

Ozaeta jauregia Tel.: 943 76 10 55  
BERGARA



*Guztion eskura dagoen luxua*

# Inoiz ahaztuko ez duzun esperientzia bat.

## Ezkon bidaiak | 2005

Barcelo bidaietan dena gertu daukagu zuen

ezkon bidaia esperientzi berezi eta ahaztezina izan dadin.

Eguzkipean atseden hartu, paregabeko abentura bizi  
edo milaka urte dituen kultura ezagutu....

Zuen nahiak direnak direla, bereziki aukeratutako  
establezimenduak ditugu zuen eskura.

Bertan abantaila bereziak eta ezkongaiendako detaileak aurkituko dituzue.

Gure oparirik onena kalitatea den arren, beste hainbat opari\*  
ditugu zuen bidaia gurekin antolatuz gero.



Aurrekontu pertsonalizatua eskatzeko: [www.barceloviajes.com](http://www.barceloviajes.com) edo gure bulegoetan.

(\*) Baldintzak kontsultatzeko etorri gure bulegoetara

Maalako Errebala, 31  
Arrasate  
Telf. 943797011

Ibargarai, 8  
Bergara  
Telf. 943760843

Kalebarria, 22A  
Oñate  
Telf. 943716343

902 200 400 | [barceloviajes.com](http://barceloviajes.com)



## ■ ARGAZKI ALBUMA

## Musika-tresnak, itsasoa edo

M.A.

**B**ikoteak duen guztia jartzen du ezkontza-ko argazkiak ondo atera daitezzen. Betiko dira argazkiak, eta gustukoak izan daitezzen nahi bada, lotsak alde batera utzi behar dira. Gaur egun, album digitalak egiten dituzte argazkilariek.

Bikote gehienek argazki albuma eduki nahi izaten dute. Badira beste aukera batzuk ere, esaterako, bideoz ezkontza grabatzea, baina gehienetan etxekoek egiten dute hori, eta argazki albuma, berriz, profesionalen esku uzten da. Aretxabaletako Maria Jesus argazkilaria esan digunez, sormenak garrantzi handia du argazkiak ateratzeko orduan. Ohiko argazkiak atera beharrekoak dira, baina toki berezietan egindako erretratuak ere nahi izaten dituzte ezkongaiak. Horretaz gain, gaur egun album digitala dago modan. Era horretan, argazkiak paperari erantsita geratzen dira.



IRUDI FOTO

## ARANTZAZU ETA JABI / BERGARA

**E**kainaren 5ean ezkondu ziren Arantzazu Agirre eta Jabi Arrondo. Bergarako udaletxean ezkondu ziren, eta ondoren, Bergarako bandaren egoitzara joan ziren. Izan ere, bikoteak bertan ezagutu zuen elkar, eta bandak entseguak egiten dituen tokian argazki batzuk atera zituzten. Esan digutenez, argazki horiek oso gogoko dituzte. Hainbat musika-tresnarekin atera zituzten argazkiak, eta gainera, argazkilaria muntaia egin zien pentagramak erabiliz.



MARIA JESUS ARGAZKILARIA

## IZASKUN ETA IKER / ARETXABALETA

**U**ztailaren 24an ezkondu ziren Izaskun Agirregabiria eskoriatzarra eta Josu urkia aretxabaletarra. Oso eguraldi ona egin zien, eta argazkiak ateratzeko ez zuten arazorik izan. Gainera, oso ondo pasatu zutela esan digute. Honako argazkian uretan ageri da bikotea, baina argazkilaria egindako muntaia da. Ez zuten kostaldera joan behar izan, gaur egun ordenagailuak erabiliz erraza baita horrelako argazkiak egitea. Ohiko argazkiak ere badituzte.



*Momentu eder guztietan*



Maalako errabala 5 • ARRASATE • 943 79 19 25

Kale Barria 18 • OÑATI • 943 71 60 74

# Iorategiak argazkien lekuko



MARIA JESUS ARGAZKILARIA

## OLATZ ETA JOSU / ARETXABALETA

**E**kainaren 19an ezkondu ziren Olatz Bengoa eta Josu Guenetxea. Eguraldi txarra egin zien, eta argazkiak ateratzea ez zen erraza izan. Aretxabaletan, Otorako lorategietan, atera zituzten argazki batzuk, baina baita herrian ere. Herriko plazan zegoen grafiti bat aprobetxatu zuten argazkia ateratzeko, baina izan ziren argazki original gehiago. Autoa konpontzen ariko balira bezala atera zuten erretratu bat.



JOSU UNAMUNO

## AITZOL ETA PALOMA / BERGARA

**M**aiatzaren 15ean ezkondu ziren Aitzol Muxika eta Paloma Carrillo. Bizkaian ezkondu ziren, eta bazkaria Zierbenan egin zuten, hondartzan atera zituzten hainbat argazki. Gainera, eguraldia lagun izan zuten. Senar-emazteek esan digutenez, argazkiak etxeko batek ateratakoak dira. Etxeko argazkiak, baina, oso gogoko dituzte, eta etorkizunean behin baino gehiagotan begiratuko dute albuma.



MARIA JESUS ARGAZKILARIA

## SANTI ETA NURIA / ARETXABALETA

**S**anti Algada eta Nuria Vazquez 2003ko irailaren 20an ezkondu ziren. Esan digutenez, ezkontza egunean atera zituzten irudi guztiak. Urkulura joan ziren argazki batzuk ateratzera, eta bertako paisaia aprobetxatu zuten. Argazki batzuk koloretan, baina beste batzuk zuri-beltzean dituzte, eta argazkilariak erretratu horietako gauza batzuk nabarmendu zituen kolorea emanaz.



**Sastreria Mujika**


Barrenkale 1, BERGARA  
Tel./ Faxe: 943 76 29 91

Ezkontzara dotore joateko.



■ AZALA ETA ILEA

# Emaztegaien begiek izaten duten distira berezia



M.A.

**D**enek esaten dute ezkontza egunean emaztegaiak distira berezia izaten dutela begietan, eta inoiz baino ederrago egoten direla. Estetika zentroetako arduradunekin izan gara, eta hori topikoa ez dela berretsi digute. Poztasunak, beraz, edertu egiten du.

Mari Karmen Etxandia eta Arantzazu Txintxurreta bat datoz ezkontza egunean emaztegaiak inoiz baino ederrago egoten direla esaterakoan. Biek hala biek estetika zentroetan egiten dute lan, eta emaztegaiak begietan izaten duen distira "berezia" izaten dela esan digute. Hala ere, distira are eta nabarmenagoa izan dadin, beti egin daiteke zerbait.

Eta ez bakarrik emaztegaien kasuan. Azkenaldian, gero eta senargai gehiago joaten da estetika zentroetara, azala garbitu, eguzkia hartu edo bekainak konpontzera. Emaztegaiak baino gutxiago, baina senargaiak ere hasi dira zaintzen. Oñatiko Guztiz Eder zentroko ardura-duna da Arantzazu Txintxurre-

ta, eta orain, duela urte batzuk baino senargai gehiago hurbiltzen dela azaldu digu: "Ezkontzera doana zaindu egiten da, eta senargaiak ere bai. Orain, emaztegaiarekin bat egoteko, pitin bat makillatu eta ere egiten dira", dio Arantzazuk.

Baina emaztegaiak askoz gehiago zaintzen dira. Azaleko eta gorputzeko tratamenduak egin, beltzaran egoteko solariumera joan, edo manikura zein pedikura egin. Gaur egun, estetika zentrotrek denetarik eskaintzen dute.

## HILABETEA LEHENAGO HASI

Mari Karmen Etxandia Gemes estetika zentroko lagunak azaldu digunez, solariumeko saioak garaiz hasi behar dira. "Hiru hilabete lehenago hastea komeni da, eta astean bi saio egitea gutxi gorabehera. Gorputzeko tratamenduren bat egin nahi bada, berriz, sei hilabete lehenago hasi beharra dago. Esaterako, bolu-mena txikitzeko tratamendua hilabeteak lehenago hastea komeni da". Era berean, gorputzeko eta aurpegiko azala ere garaiz garbitzea aholkatzen dute adituek. Eguzkia hartu aurretik, esaterako, azala garbi egotea garrantzitsua izaten da. Arantzazuren berbetan, gainera, ezkontza baino

Emaztegiek makillaje naturala nahi izaten dute. Gainera, senargaia zurbilegi joatea ere ez da komeni izaten.

GOIENKARIA



## TRATAMENDU BEREZIAK EGUN BEREZIRAKO

Aurpegi tratamenduak

Gorputz tratamenduak

Makillajea

Manikura

Pedikura

Solariuma

ETA OPARI BEREZIAK ZURE GONBIDATUENTZAT

*Lore*

Olarte kalea 10  
Tel.: 943 79 52 50



# MARGA

jantzi denda

Iturriotz 21 • ARRASATE • Tel.: 943 71 17 40  
San Pedro 20 • BERGARA • Tel.: 943 76 05 37





**Emaztegaiak ez ezik, senargaiak ere joaten dira estetika zentroetara**

**Makillaje naturala izaten da; eta senargaia zurbil joatea ez da komeni izaten**

**Modu batera zein bestera, emaztegai askok ilea batuta eramaten du**



GOIENKARIA

Ile-apaindegian, aurpegiko akatsak nabarmenduko ez dituen orrazkera aukeratzen lagunduko digute.

astebete lehenago ere egin daiteke aurpegiko tratamendu berezia, ezkontza egunean azala distiratsu edukitzeko.

#### **EZKONTZA EGUNEKO MAKILLAJEA**

Ezkontza egunean zelan makillatu ere aurrez erabakitzen da.

Hainbat proba egiten dira horretarako, baina betiere makillaje naturala nahi izaten dute emaztegaiak. "Gainera, bikotearen artean ezin daiteke desberdintasun handirik egon. Hau da, emaztegaia oso makillatuta eta senargaia, berriz, oso zurbil joatea ez

da komeni", esan digu Mari Karmen Etxandiak. Gainera, soinekoa probatzera joaten denean makillatu egiten dute emaztegaia, soinekoarekin zelan gertatzen den ikusteko. Aretxabale-tako Gemes estetika zentroan hainbat emaztegai makillatzen

badute ere, gaur egun gero eta ohikoagoa da ile-apaindegietan makillatzea.

Eta inoiz ahaztu ezin dena: manikura eta pedikura egitea. Ezkontza egunean azazkalak sarritan erakutsiko direla eta, horiek ondo zainduta egon behar dute. Gainera, azazkalak janda izanez gero, ordezkoak jartzeko aukera izaten da. Eta oinekin berdin. Oinetako azazkalak zainduta eramatea komeni da. Margotu ere egin daitezke.

**ORRAZKERA, SOINEKOAREKIN BAT**  
Orrazkera, ezin ahaztu. Norberaren eta soinekoaren estiloarekin bat egingo duen orrazkera eramatea izaten da egokiena. Hemen ere aukerak ugari izaten dira, baina orrazkerak, zelanbait, berezia izan beharko du.

Ezkontzera doala eta, ilea luze uztera doan emaztegaiarekin topo egitea ez da batere zaila izaten. Modu batera zein bestera, emaztegai gehienek ilea batuta eramaten dute ezkontza egunean. Baina aurpegiko akatsak agerian gera daitezke aukeratutako orrazkeraren arabera; horregatik, dohainak agerian uzten ahaleginduko da ile-apaintzailea. Gaur egun, ugariak dira egin daitezkeen mototsak, eta ilea kizkurtuta eramatea ere oso ohikoa izaten da. Bata zein bestea, oso dotore gertatzen dira. Horrez gainera, ilearen kolorea zaindu beharrekoa da. Metxa oso nabarmenak ez dira egokiak emaztegaien kasuan, eta ilean distira izatea garrantzitsua da.

Gainera, ilean apaingarriren bat eramatea modan dagoenez, modu batera zein bestera ilea batzea izaten da irtenbidea. Ileo apaingarriei dagokienez ere, merkatuan aukera zabala dago, baina loreren bat jartzea modan dago. Azkenaldian, gainera, belo indarra hartzen ari da. Kasu horretan bai, orrazkera sinpleagoa izan daiteke. Jakina, beloei dagokienez estilo askotarikoak daude. Gurean, hala ere, gutxi ikusi ohi dira.



San Juan auzoa 33  
AXPE-ATXONDO  
Tel.: 94 682 08 33  
Faxa: 94 682 11 36  
[www.mendigoikoa.com](http://www.mendigoikoa.com)

## ■ EZTEI-BIDAIK

# Bidaia eztea egiteko aukerak



## GARBIÑE ETA JOSEBA, ITSASONTZIZ BIDAIA

**U**rrian egin zuten Mediterraneoan zeharreko bidaia Garbiñe Zubia eta Joseba Zaldia oñatirek. Bartzelonan hasi, eta Italia eta Tunisia bisitatu ondoren, Palman bukatu zuten bidaia. Asko gustatu zitzaizkien itsasontziz egindako bidaia. Gauz bidaia eta egunez tokiak ikusteko aukera izaten zuten. Astebete iraun zuen bidaia horrek. Jarraian, Alemania, Belgika eta Suitza ezagutzeko bidaia egin zuten, baina autobusez.

M.A.

**E**ztei-bidaia oso gogoko izaten dute ezkonberriek. Aukerak ugari dira, salneurriak ere bai, eta bikoteak aukeratzen du bidaia zelan egin: norberaren kontura edo agentzia bidez. Hori bai, guztiek esan digute eztei-bidaia berezia izaten dela.

Jaione Antsok Arrasateko Eroski Bidaiak agentzian egiten du lan, eta maiatzetik ekainera bitartean eztei-bidaia asko izaten direla esan digu.

Bidaia mota bi izaten dira aukeran, Jaionek kontatu digunez: "Batetik, hotel on batean ostatu hartu, eta hondartzaz gozatzeko aukera dago. Hori aukera-

tzen dutenek Karibera egiten dute, Mexiko edo Dominikar Errepublikara, besteak beste. Pertsonako 2.200 euro ordaindu behar da. Beste batzuek, berriz, zirkuitu bat egin eta ondoren astebetean hondartzaz gozatu nahi izaten dute. Esaterako, Mexikora joan, gauzak ikusteko, eta ondoren Karibbean bukatu bidaia. Kasu horretan, 3.000 euro inguru ordaindu behar du bakoitzak". Jaionek azaldu digunez, senar-emazte gehienendako berezia izaten da eztei-bidaia, eta, hala izanik, gehiago gastatzeko gertu egoten dira. Gehienek, 10 eguneko bidaia egiten dute.

Baina, esan bezala, aukerak gehiago dira. Jarraian ikusiko dugun moduan, batzuek euren kontura antolatzen dute bidaia, eta gainera, eztei-bidaia luzatzea ere gero eta ohikoagoa da.



## AINHOA ETA AITOR, MEXIKO ETA GUATEMALA

**A**inhoa Zubikarai eta Aitor Peñagarikano antzuolarrak Mexiko eta Guatemala ezagutzera joan ziren. Urrian egin zuten eztei-bidaia, eta bidaia guztia lotuta eramanez zuten hemendik. Bai Mexikok zein Guatemalako oso toki bereziak dituztela, eta bat bakarrik ezin izango luketela aukeratu esan digute. Mexikon Campeche, Palenque eta Txiapas bisitatu zituzten. Guatemalan, berriz, Antigua hiria eta Chichicastenango herria, bertako azoka berezia izaten baita.


# Gemes

## estetika

*Inoiz baino distiratsuago egongo zara*







#### NATALI ETA IKER, ARGENTINA

**S**ekulako bidaia egin zuten Natali Martinez eta Iker Ayesa arrasatearrek. Hegoaldean hasi zuten bidaia, eta ondoren, iparralderuntz abiatu ziren. Argentinan oso ezagunak dira Iguazuko ur-jausiak, eta euren begiekin ikusi zuten naturak egindako lan zoragarria. Argentina oso handia denez, sei bider hegazkina hartu behar izan zuten batetik bestera joateko. Eta hori izan zen garestiena, hau da, hegazkina makina bat bider hartu behar izana. Bestela, merkea da. Gainera, Txilera ere egin zuten sartu irtena, baina eguraldiak ez ziela lagundu esan digute. Gainontzean, Argentinan udazkena zen bidaia egin zutenean.



#### LORE ETA AITOR, INDONESIA

**A**zaroan egin zuten eztei-bidaia Lore Martinez aretxabaletarrak eta Aitor Artolazabal soralezetarrak. Indonesiara abiatu ziren, Bali uhartera. Tenplu ugari dago Balin, oso herrialde erlijiosoa baita, eta Indonesian musulmanak nagusi badira ere, Balin hinduismoak du indarra. Lorek eta Aitorrek esan digute edonori gomendatzeko moduko tokia dela. Naturaz gozatzeko aukera ere bada, gurean ikusten ez diren animaliak eta sumendiak ugari baitira.



#### ARANTZAZU ETA IKER, COSTA RICA

**I**railaren amaieran hasi zuten eztei-bidaia Costa Rican, eta abentura eta natura gogoko dutentzat oso aproposa dela esan digute Arantzasu oñatiarrak eta Iker antzuolarrak. Ohian tropikalak, hondartza basatiak, terma naturalak, sumendiak... Erakargarria da Costa Rica. Eta azken astean, atseden hartzeko asmoarekin, Dominikar Errepublikara joan ziren. Hotel batean izan ziren astebetetz, hango hondartza ederrekin gozaten.



## GURE AMETSA JATETXEA

- Ezkontzatarako areto handi eta erosoak
- Aparkaleku pribatu handia
- Aperitiboendako terraza
- Sukaldaritza zaindu eta paregabea
- Aurrekontu guztietarako menuak


Leintz Gatzaga · Tel./Faxa: 943 71 49 52

SAIO BEREZIA GOIENA TELEBISTAN

## Ezkontzak

Astlehenean, martxoaren 21ean, 21:00etan

**Goitb**  
Goiena Telebista  
*Ikustekoa!*



## ■ EZKONTZAKO BAZKARIA

# Bazkaria zein jatetxetan egin: lehenengo erabakia

MARIA AGIRRE

**J**atetxea aukeratzea izaten da lehenengo lana. Zenbat jende gonbidatu nahi duten eta gutxi gorabehera data zehaztu ondoren, jatetxearekin harremanetan jartzen dira ezkongaiak. Inguruan, bada makina bat aukera bazkaria egiteko.

Bazkaria izaten da ezkontzako unerik garrantzitsuenetarikoa. Gonbidatuak pozik geratu behar dira, eta hori lortzeko, menu egokia aukeratu behar izaten da. Ibarreko eta inguruko jatetxeek esperientzia handia dute horretan, eta gainera, ezkongaiari gomendioak egiten dizkiete, ezkontza ondo atera dadin. Oñatiko Etxe-Aundi jatetxean 1988an hasi ziren ezkontzako bazkariak eskaintzen. "Urtean 40 ezkontza izaten ditugu gutxi gorabehera. Ibarreko bezeroak ditugu, Oñati, Bergara eta Arrasatekoak, baina baita Ermua, Legazpi eta Eibarkoak ere", esan digu Marga Romariz maitreak. Antzera gertatzen da Bergarako Lasa jatetxean ere. Behin berrituta, 1994an hasi ziren era horretako bazkariak egiten,

eta Koldo Lasa jabeak esan digunez, gainera, "ezkontza bazkari batekin hasi genuen ibilbide berria". Etxe-Aundin jangela bi dituzte. Batean 120 gonbidatutarako tokia dago, eta bestean, 230 lagunendako. Lasan, berriz, barruan 180 gonbidatu sartzen da, eta karpa kontuan hartuz, 240. Bestalde, jangela txikiagoak ere badituzte. Eta Axpeko Makatzeta jatetxean 180 lagunendako jangela handia dute. Hor ere badira jangela txikiagoak.

Ezkondu baino hiru edo lau hilabete lehenago, dastatzeko menua ematen diete ezkongaiari. Horrela, menua aukeratu dute. Gero, aukeratu duten menuaren arabera, aurrekontua egiten diete. Bikoteak, aurrekontua azertu, eta ezkontza egunean zein menu izango den hitzartzen da. Marga Romarizek esan digunez, gutxi arriskatu du bikoteak. "Lehen plateretan arriskatu dute apur bat, dastatzeko platerak direlako. Baina ondorengoak ezagunak izaten dira".

Jatetxean ere garaiz hasten dira guztia prestatzen. Etxe-Aundin, egunerako mahaiak prestatzen dituzte. Sukaldean ere egunean hasten dira jaki batzuk prestatzen. Masak eta antzeko gauzak egiten dituzte. Eguba-



AINTZANE AGIRRE

Etxe-Aundi jatetxean egunerako prestatzen dituzte mahaiak.

koitzean, berriz, arraina garbitu, hostopila prestatu eta otarrainxkak zenbatzen dira. Zapatuan, goizeko 9etarako sukaldeko guztiak lanean izaten dira.

Barazkiak garbitu, eta arraina prestatzen aritzen dira; eguerdian, berriz, urdaiazpikoa moztu eta horrelako lanak egiten dira. Okela eta arraina, berriz,

azken unean prestatzen dituzte, egin berri jateko.

Marga Romarizen ustez, jate-txearen eta ezkonberrien artean ondo elkar ulertzea garrantzitsua da. Puntualak izan beharra dago. Gauzak atzeratzen hasiz gero, arazoak etortzen dira. Bazkaria esandako orduan hasia ezinbestekoa da. Iritzi hori du Makatzeta jatetxeko jabe Joxe Basetak ere. Urtean 35 ezkontza izaten dituzte, eta bazkaria esandako orduan hasia garrantzitsua dela uste du. Koldo Lasak, berriz, gosearekin joatea inportantea dela iritzi dio. "Ez daitezela etorri gonbidatuak hamarretakoa eginda, bestela ez dute gosarik izaten eta".

Eta bazkariak gain, ostean izaten den dantzaldirako taldea aukeratu behar izaten dute ezkongaiak. Batzuek disko jar-tzailearen aldeko apustua egiten dute, baina gehienek nahia-go dute musika taldea.

**Dastatzeko menua ematen diete ezkongaiari, zein menu nahi duten erabakitzeko**



*Egun berezi horretan ikusgarri egon zaitezten... Emaztegaiantzat barruko arropa zoragarriak aukeran*



Otalora Lizentziaduna 21  
Arrasate  
Tel.: 943 79 12 05



*Dotoretasunaren zaporea*

*Joseba*  
JATETXEA  
FLOREAGA Jauregia

Aizkibel 10 AZKOITIA  
Tel.: 943 85 34 12



# IKER

**SUKALDEAK:**

ARRASATE:  
Udala Plaza z/g  
943 79 00 43

OÑATI:  
San Lorentzo 1  
943 53 35 48

**BAINUAK:**

ARRASATE:  
Zarugalde 52  
943 79 99 42

FAGOR 



## Ezkongaiak-2005 Berezia

Aurten, zure eztei-bidaiaren erreserba **EROSKI BIDAIK**-en egiterakoan preziorik onena lortzeaz gain, hau guztia irabaziko duzue...

**1.000 puntu TRAVEL CLUB eta opari zoragarri bat\*!!**



Haririk gabeko telefonoa Dect  
THOMSON Versatis 500



Musika-kate bat LC  
LX-M1 40D



75 piezatak Mahai-Tresneria  
JAY Corona

 **EROSKI** bidaiak  
merezi duzu

Laguntzaile



\* Erreserbaren zenbatekoaren arabera.



Hiru jangela – Menua eta karta

Hiru jangela : 14, 30 eta 180 lagunendako

Lagun eta familiarteko ospakizunak  
Bataioak, jaunartzeak eta ezkontzak

Debagoienetik oso gertu!

Arrazola – Aitzondo

Tel.: 94 658 29 31



# Jean Louis David®

## Ausart

ZAITEZ UDAKO ORRAZKEREKIN

### TRADITION

Ibargarai 43 • 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 22 48

### DIFFUSION

#### QUICK SERVICE

Magdalena 16 • 01008 GASTEIZ • Tel.: 945 13 47 26

### DIFFUSION

Garbera ztro. kom.23 aretoa  
20017 DONOSTIA • Tel.: 943 39 45 86

### DIFFUSION

Urbil ztro. kom., B7 aretoa.  
20170 USURBIL • Tel.: 943 36 08 17

### DIFFUSION

Lakua ztro. kom., 05 aretoa  
01010 GASTEIZ • Tel.: 945 17 91 50

# Goienka2a

Egubakoitza / 2005eko martxoaren 18a

Kultura  
eta  
aisialdia



Martxoaren  
18tik 25era

blog blog blog blog blog blog blog  
blog blog blog blog blog blog blog  
blog blog blog blog blog blog blog  
blog blog blog blog blog blog blog  
blog blog blog blog

Blog, weblog edo bitakora: webgune dinamikoa (etengabe eguneratzen dena) eta idatziak edo sarrerak berriene-tatik hasita erakusten dituena. Hain definizio sinplea duen kontzeptu horrek Interneteko garai berri bat sorrarazi du. Bloga pertsonala da eta norberak erabakitzen du zer argitaratu gura duen Interneten. Ez da bloga sortzeko apar-teko arrazoirik behar: esateko zerbait izatea, eta hori adierazteko grina bakarrik. Idatziak ez ezik, denetarik kabi-tzen da blogean: argazkiak, abestiak, bideoak, publizitatea, edo irudimenak agintzen duena. /14

## INTERNET/ BLOGEN FENOMENOA GURERA IRITSI DA

## Aurten, blogen urtea Debagoienez

NORBERA INTERNETEZ KOMUNIKATZEKO TRESNA ERRAZ ETA INTERAKTIBOA DA BLOGA; 'GOIENA.NET'-EN BLOGA EGITEKO AUKERA DAGO

LEIRE KORTABARRIA

Internet gaitaz jantzen dau denek esan zuten 2004. urtea izan zela blogen urtea. Debagoienez, aldiz, 2005 izan daiteke urte hori, blogak nonahi lorazten dabilta eta. Bloga da Interneten argitaratzeko modu errazena. Orain, [www.goiena.net](http://www.goiena.net)-en bidez, edozein egin daiteke blogari.

Goienak blogen aldeko apustua egin du, eta [www.goiena.net/blogak](http://www.goiena.net/blogak) helbidean, zenbait blog irakurri eta norberak berea eskatzeko parada dago. Blog hitzak zer esan gura du, ordea? Oso erraza da: bloga da Interneten egiten den bitakora edo argitalpen pertsonal bat. Internet gustatu eta esateko zerbait izatea, horiek dira blog bat egiteko baldintza bakarrak. Ez dago Interneten gaineko jakintza teknikorik izan beharrik; blogak erabiltzea eta horietan argitaratzea oso erraza da eta berehala ikasten da.

Webguneen aldean, muga batzuk badituzte bitakorek, baina baita abantaila ugari ere: ez dute haien konplexutasunik, doan dira, edukiera mugagabea dute, hau da, han argitaratutako edukia artxibatu egiten dira eta ez dira galtzen... Horrez gain, interaktiboak dira: artikulua edo sarreari erantzuteko aukera dago. Horri esker, komunikazioa sortzen da eta blogarien arteko komunitatea antzeko bat eratzen da. Lehenengo euskal blogosfera Eibar inguruan sortu zen, [www.eibar.org/blogak](http://www.eibar.org/blogak) webgunean, hain zuzen.



Emakume gutxiagok dute bloga gizonetako baino, baina emakumeak ere gero eta gehiago animatzen dira.

## Zenbait hitz eta adiera

**BLOGARI**

Bloga duen pertsona.

**EUSKAL BLOGOSFERA**

Zenbait blogek osatutako komunitatea da blogosfera; blog horiek zelanbaiteko harremana dute bata bestearekin. Euskal Herriko blogosfera gero eta handiago da. Ezinezkoa da kopuru zehatza jakitea, baina 200 bat, gutxienez, badago.

**FLAMING**

Interneten lehendik zegoen fenomeno itsusi hori indartu egin da blogak sortu direnez geroztik. Anonimotasunean babestuta, blogariaren postei erantzun iraingarriak ematea behin eta berriz.

**TRACKBACK**

Horri esker, gure bitakorara bateren batek lotura egin duela jakingo dugu.

**FEED (RSS)**

Feed-ak ahalbidetzen dituzten blog ahaztuetan, RSS ikurra ikusiko dugu. Feed bat da artikuluen laburpen bat, eta horiek batu eta hainbat blog webgune bakar batetik irakurtzeko aukera dago. Horretarako kontua zabaldu behar da webgune baten. Bat da [bloglines.com](http://bloglines.com).

**INFORMATZEKO, LIGATZEKO...**

Debagoienez blogak bultzatu gura ditu Goienak, [www.goiena.net/blogak](http://www.goiena.net/blogak) atarian. Norberak askatasun osoa du bere bloga egiteko, euskaraz eta errespetuz idatzita, betiere. Jendeak denetari-ko arrazoiengatik egiten ditu blogak: komunikatzeko, informazioa emateko, publizitatea egiteko, ideia politiko batzuk aldarrikatzeko, bere zaletasunak jorrazteko -argazkiak, poesia, fikzio

lanak, abestiak... denetarik ipin daiteke blog baten-, ligatzeko, edo espresio modu pertsonal moduan. Goiena.net-eko blogak horren adibide dira. Honakoak daude oraingoz: *Faroa*, Joxe Arantzabalen bloga, gai askotarikoa; *Piperrautsa*, Mikel Irizarrena; *Mathiasen kopilotua*, Edu Mendibil kazetariaren webloga, "Interneten nabigatzeko eta naufragatzeko", bere esanetan; *Zinema*, Antonio Zabala bergararrak

filmen kritikak egiteko zabaldu duena; *Klik Bikoitze*, Imanol Soriano maketatzailearen webloga, Internet, diseinu eta teknologiaren ingurukoa; eta *Superbai*, Goio Arana maketatzailearena, diseinu arloko kontuez.

Beste bitakora zerbitzu batzuk ere badaude. Erabilienetarikoa bat da [www.blogger.com](http://www.blogger.com); hor euskaldun askok idazten dute. Beste batzuk dira [bloglines.com](http://bloglines.com) edo [www.xanga.com](http://www.xanga.com).

## Topaketa Elgetan


Debagoieneko blogarien lehenengo festa izango da apirilaren 17an, EAEko hauteskunde eguna. Elgetako Espaloia antzokian, 18:30ean, da hitzordua. Bloga duen edozein dago gonbidatuta. Festa horren helburua da, soilik, blogarietara elkarrekin egoteko aukera ematea, lagunarteko giroan; eta, bide batez, hauteskunde eguneko gorabeheren berri jaso ahal izango da.

Deialdi hori ez dute halabeharrez egin; AEBetan edo Erresuma Batuan Blogs & Beers (blogak eta garagar- doak) topaketen Debagoieneko bertsiotzat izango da.


## Ingurukoak badabilta

- [www.eibar.org/blogak/egorblog](http://www.eibar.org/blogak/egorblog)  
Igor Leturia / Arrasate. Informatika eta komikien gaineko bloga da.
- [frommilwaukee.blogspot.com](http://frommilwaukee.blogspot.com)  
Jon Larrañaga / Arrasate. AEBetako bizipenak.
- [www.photoblog.be](http://www.photoblog.be)  
Iñaki Mondragon / Aramaio. Webgune horretan argazki- bloga du 25 urteko gazteak.
- [www.blogger.com/profile/3924228m](http://www.blogger.com/profile/3924228m)  
Kepa Diegez / Arrasate. Eguraldiaz idazten du.
- [patxitrapero.blogspot.com](http://patxitrapero.blogspot.com)  
Patxi Iraeta / Zumarraga. Euskal blogarietara ereserkia ipini du bere bitakoran.

## Dauden eta etorriko diren blog batzuk

• Blog dibulgatiboa  
**ALBERTO AGIRREAZALDEGI**

Ibilaldiak dira Albertoren zaletasun handienetako bat. Horien berri emango du bere blogean. "Kaleratuko dudana beste batzuek erabili ahal izango dute", diosku, eta mapak, argazkiak, argibideak... argitaratuko ditu.

• Blog komertziala  
**GOIENA-ASIER ZABARTE**

Negozioek, elkarrekin... tresna egoki dute bloga. Informazio jarria eta bezeroekin komunikazioa ahalbidetuko die. Asier Zabarte komertziala joango da laster ibarreko negozioei Goienaren blogen berri ematera.

• Blog pertsonala  
**MIKEL IRIZAR**

GOIENKARIAko kolaboratzailearen artikulua *Piperrautsa* blegean daude orain, [Goiena.net](http://Goiena.net)-en. Berak bere buruaz dio "afizioz komunikatzaile" dela, eta bere iritziak kaleratzeko beste modu bat da blog hori.

ELKARRIZKETA/ HUHEZI-KO LITERATURA ASTEAN HITZALDIA EGIN ZUEN ANJEL LERTXUNDIK

ANJEL LERTXUNDI, IDAZLEA

# “Entzutera joaten zaizkizunak literatura-zaleak dira, eta beti sortzen da enpatia”

LEIRE KORTABARRIA

**E**uskal letren munduko punta-puntako kide bat izan dugu oraintsu Debagoienean: Anjel Lertxundi (Orio, 1948). Eskoriatzako HUHEZI fakultateko Literatura Astean hitzaldia egin zuen joan den martitzenean. Entzuleen esanetan, hitzaldi bikaina, izan ere.

**Zure hitzaldira joan zirenak pozik geratu ei ziren. Zeu ere bai?**

Pena batekin geratu nintzen: prestatu nuen dena esateko astirik gabe geratzea. Hala ere, nik jorratzen dudana gai bat zen –literatura bidaia moduan–, eta horren gaineko hausnarketa batzuk egin genituen. Bestalde, Literatura Astea antolatzen hasi zirenetik zenbait aldiz gonbidatu ninduten, eta aurten izan dut joateko egokiera. Oso giro polita topatu nuen, eta idazle batek beti eskertzen du literaturarekiko arreta eta interesa.

**Irakurleekin zuzeneko hartu-eman hori gustuko duzu, hortaz.**

Sekula ez dakizu zure irakurleak diren, baina badakizu, behintzat, literatura-zaleak direla; horregatik, berehala sortzen da elkarrenganako enpatia bat.

**Egunkarian irakurtzen zaituzten batzuek diote sumatzen zaizula literatura-gizon zarela lehenik eta behin. Ados?**

Idazle bati beti sumatzen zaio idazlearen jarioa, liburu bat ida-

tzi, hitzaldi bat egin zein artikulatu bat idatzi. Arraroa litzateke ez nabarmentzea. Bestalde, nahiz eta lan eta denbora gehiago eskatzen duen, narratiba egiten sentitzen naiz gusturen, nobelak edo ipuinak idazten, alegia.

**Edozein genero lantzen duzula ere, zure idazkera beti da oso zaindua eta jantzia.**

Izan ere, nik, irakurtzen dudanean, istorioa bera bezainbat estimatzen dut hizkuntzaren gozamenari; euskara, gaztelania, frantsesa... gozatzea. Neuk ere hori transmititu nahi izaten dut: ez bakarrik istorio atsegin bat, baizik eta horrek daraman jantzia.

**Kultura arlo askotan diharduzu. Intelektualaren irudierekin identifikatzen zara?**

*Intelektual* hitza oso jasoa da, konnotazio asko ditu. Nik kulturagile moduan ikusten dut nire burua. Idazkuntzak hainbat kontuz hausnartzeko aukera ematen dion kultura-gizontzat daukat nire burua. Inguratzen nauenez hausnartzea da nire betekizuna.

**Zinema izan da zure lan arlo horietako bat. Zein eragin izan du zugaran?**

Zinematik ikasi dudana zer bait garrantzitsua da, idazten dudanean, nire buruari galdeztzea kamera non jarri behar dudana. Nire testuek plastikotasun handiagoa dute orain hasieran baino. Ikusle moduan, Orson Wellesen zinemak asko erakarri ninduen. Baina urtero badago oroimenean geratzen zaizkizun film pare bat.



ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Anjel Lertxundi, joan den martitzenean, Eskoriatzan.

## Blogen jarraitzaile

**E**uskararekiko eta euskal sorkuntzarekiko konpromiso sendoa izan du beti Anjel Lertxundik, eta arretaz jarraitzen ditu euskalgintzako berriak. Ez da harrizkera, hortaz, euskal blogosferaren jarraitzaile fina dela jakitea: “Irakurtzen ditut hainbat blog, eta nahiko gertutik jarraitzen dut euskal blogintza. Ondo ezagutzen dut, bai”, diosku oriotarrak. Baikor da euskal blogen etorkizunaren gainean: “Oraindik garatzen ari da, eta esplotatzeko bide bat da. Euskal kultura ez da oraindik blogen presentzia gehiegi jabetu, baina, oso denbora laburrean, bere fruituak emango ditu”, gaineratzen du.

Euskal bitakoragintza bi bidetik joango dela aurreikusten du: “Batuetan, Interneten bertan garatuko da; beste batuetan, Interneten bidea egin eta gero, liburu gisan moldatuta, Joxe Arantzabalen esperientziak erakusten duen moduan”. Berak, hala ere, ez du blogik: “Prentsan egunero idazten ditudan artikulua dira nire bloga”, dio Lertxundik.

“Giro polita topatu nuen Eskoriatzan, eta idazle batek beti eskertzen du interes hori”

“Intelektual baino gehiago, kulturagilea naiz: inguratzen nauenez hausnartzen dut”



KIA MOTORS

**KIA SORENTO**  
Gasolina/Diesel  
24.300 eurotik aurrera\*



**KIA CARNIVAL**  
Gasolina/Diesel  
19.300 eurotik aurrera\*



**KIA PICANTO 1.0 / 1.1**  
“0 km” azken unitateak  
6.580 eurotik aurrera\*

## Tecnocar

Honda eta Kia banatzaile ofiziala



**TECNOCAR GIPUZKOA**  
Erakusketa eta tailerra  
Araba etorbidea z/g – Arrasate  
943 79 22 67 –  
Faxa: 943 71 27 38

Adi!

- 3 urteko garantia
- 0 km aukera bereziak

\*Prever plana barne.

## HONDA

The Power of Dreams

**HONDA CRV**  
27.300 eurotik aurrera\*

**DIESEL BERRIA**



**BERRIA: 6 eserleku**  
**HONDA FRV**  
20.600 eurotik aurrera\*



**HONDA ACCORD**  
Gasoli./Dies.  
22.100 eurotik aurrera\*

# Martxoak 18-23

Leire Kortabarria / Zuen ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguzteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: [kultura@goiena.com](mailto:kultura@goiena.com) • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

## DEIAK

### ARRASATE

► **Moda desfilea** egingo dute Arizmendiko Batxilergoko 1. mailako ikasleek gaur, egubakoitza, Amaia antzokian, 18:30ean. Ikas bidaiarako dirua batzeko antolatu dute.  
► **18/98 sumarioaren** gaineko hitzaldia antolatu du horren aurkako plataformak hilaren 22rako, eguena, Monterronen, 19:30ean. Mario Zubiaga legelaria, Nekane San Miguel epailea eta Natale Landa inputatua izango dira.  
► **34an jaiotakoek** kinto batzarra egingo dute apirilaren 2an. Izena emateko, 10 euro aurreratu behar dira Bengoa tabernan martxoaren 30 baino lehen.

### DEBAGOIENA

► **Puntu Berde Mugikorra** bihar, zapatua, egongo da ohiko lekuetan Arrasaten eta Bergaran. Martxoaren 26an zen hurrengo han egoteko, baina aurreratu egin dute, Aste Santuko oporrak direla eta.

### ESKORIATZA

► **Hitzak lagun, bidaia dezagun** izeneko ekitaldia egingo dute HUHEZIKo ikasleek gaur, egubakoitza, fakultatean, 11:30ean, Literatura Astea ixteko. Joan gura duten denendako dago zabalik.  
► **Parrokiako batzar nagusia** deitu dute gaurko, egubakoitza, parrokiari, 19:30ean.

### OÑATI

► **Herriko ezker abertzaleak** ekitaldi politikoa egingo du gaur, egubakoitza, Santa Ana antzokian, 19:00etan. Arnaldo Otegi parte hartuko du.  
► **Odol-ateratzeak** egingo dituzte gaur, egubakoitza, ikastolan, 18:00etan.  
► **Umeendako jolasparkea** egingo dute Txantxiku ikastolako ikasleek bihar, zapatua, ikastolan, 16:30-19:30. Sarrera da 3 euro. Ikasbidaiarako dirua batzeko antolatu dute.  
► **Kzgunea itxi egingo dute** hilaren 21etik 29ra bitartean, Aste Santuko oporrak direla eta.  
► **1981ean jaiotakoek** kinto bazkaria egingo dute apirilaren 30ean, eta

izenematea apirilaren 18a baino lehen egin behar da. Horretarako, sartu 30 euro Euskadiko Kutxako honako kontuan: 3035 0002 13 0020042837.  
► **1961eko irailetik 1962 urte bukaerara bitartean** jaiotakoek kinto afaria egingo dute apirilaren 2an. Izena emateko, martxoaren 27a baino lehen deitu behar duzue honako telefonoetara: 943 78 33 22 (Marilu) edo 653 73 08 03 (Aran). Hildako kintoen aldeko meza izango da Agustindarren elizan (19:30).

## ANTZERKIA

### ARRASATE

► **Greban gaude** antzezlan egingo du Lakrikun taldeak gaur, egubakoitza, emakume txokoa, 20:00etan.  
► **Kike Loyola** komikoak emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, Gure Leku tabernan, 23:00etan. Sarrera, doan.

### ELGETA

► **Pérez y Fernández** antzezlan egingo du Zanguango taldeak gaur, egubakoitza, Espaloia antzokian, 22:30ean.

### ESKORIATZA

► **Adar bakar urdina** txotxongilo saioa egingo du Bihar taldeak bihar, zapatua, HUHEZIn, 18:00etan. 3-8 urte bitartekoei zuzenduta dago.

## MUSIKA

### ARRASATE

► **Black Sheeps (Bergara) eta Heilin Tropek (Eskoriatza eta Getxo)** taldeek kontzertua eskainiko dute gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean. Biak ala biak Danbaka lehiaketan izena emandakoak dira.

### BERGARA

► **Amparanoia** taldeak, Amparo Sanchezen proiektuak, joko du gaur, egubakoitza, Jam aretoan, 22:00etan. DJ Birdy ere arituko da. 16 euro da.

► **Elvis Presleyren bertsioak** joko ditu The Hound Dogs Bergarako taldeak gaur, egubakoitza, Pol-Pol tabernan, 23:00etan.

► **Udaberriko Jaia** egingo dute Nahikari tabernan. Hori dela eta, honako kontzertuak antolatu dituzte: gaur, egubakoitza, Stukas taldea; eta bihar, zapatua, Azkaiter Pelox eta Blues & Fariak gaua.

► **Kamelot, Epica eta Kotipelto** taldeen kontzertua izango da bihar, zapatua, Jam aretoan, 21:00etan.

► **Julie Doiron eta Berg Sans Nipple** taldeen kontzertua izango da etzi, domeka, Go Jam aretoan, 20:30ean.

### OÑATI

► **Unai Azkarate** bakarlariak emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, 10:30ean, Eteoko tabernan. Kultura Astearen barne antolatu dute ekitaldia.

► **Txuma Murugarren** rock bakarlariak kontzertua eskainiko du gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 22:30ean. Laixanek antolatzen du, Kultur Errota egitasmoaren eskutik.

► **Los Coronas (Madril), Los Chicos Boom (Arrasate) eta Sharon Stoner**

(**Oñati**) taldeek emanaldia egingo dute bihar, zapatua, gaztelekuan, 22:30ean. The Straitjackets musika taldearen estiloko doinuak jotzen dituzte Los Coronasekoek. 5 euro da.

## IKASTAROAK

### ARRASATE

► **Gazteendako magia eta sabel-dantza ikastaroak** antolatu ditu Gazte Informazio Bulegoak. Apirilean hasiko dira. Matrikula 20 euro da, 12 ikasle edo langabeendako.

### BERGARA

► **Argazkigintza ikastaroa** antolatu dute Udalak eta Pol-Pol argazki taldeak, apirilean hasteko. 40 euro da, 25 ikasle eta langabeendako. Argibide gehiagorako, jo kultura etxera.

► **Emakumeendako autoestimua** ikastaroa antolatu dute Udak Gizarte Zerbitzuek. Izena emateko, deitu lehenbailehen 943 77 91 25 telefono zenbakira edo jo udaletxera.

### OÑATI

► **Oñatiko Institutuak doako ikastaroak** antolatu ditu, eta izena emateko azken egunak dira hilaren 21, 22 eta 23a. Hain zuzen, torno konbentzional eta CNC programazio eta prestaketa ikastaroak dira. Argibideetarako, deitu 943 78 21 50 telefonora edo jo [www.oinati.net](http://www.oinati.net) webgunera.

## ERAKUSKETAK

### ANTZUOLA

► **Maristak Antzuolan** delako erakusketa egongo da bihar eta etzi Olaran etxean, 12:00-14:00 eta 18:30-20:00 orduetartean. Erakusketa hori bisitatzeko azken egunak dira.

### ARRASATE

► **Tomas Rubio Roy eskoriatzarren** margo erakusketa dago Harresi aretoan, Iturriotz kalean, astegunetan, 18:00-20:00, eta zapatu eta jaiegunetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:00, hilaren 20ra bitartean.



► JAIA

## ERRAMU ZAPATUKO FERIA ETA HAINBAT OSPAKIZUN, BIHAR BERGARAN

Bergarako erdialdea azokagune bihurtuko da bihar, zapatua, Erramu Zapatuko Feria ezaguna hartzeko. Ganaduzale eta artisauendako, batez ere, euren produktuak erakusteko aukera bikaina izaten da, eta azokak gustuko dituztenendako, ondo pasatzeko moduko eguna. Feria 09:30ean zabalduko dute, abelburu, Euskal Labeleko produktu, artisautza lan eta makineria erakusketarekin. Goiz osoan, trikitaliak eta zantzarrik ibiliko dira, eta txakur-leren erakusketa ere egongo da. Eguerdian, lbargarai ibilbidean erakusketa eta sari banaketa egingo dituzte; 13:00etan, Pirenaika bigantzen enkantea. Gero, umeendako jolasak eta bertsolarien emanaldiak izango dira, eta 22:15ean, bertso jaialdia, pilotalekuan.

**Non:** Bergarako erdigunean. **Noiz:** bihar, martxoak 19, zapatua. **Ordua:** azoka, 09:30etik 12:30era bitartean.

## ANBOTOSTE

SUKALDE BEGETARIANO  
ETA TEAK



Teak, Infusioak, Zuku Naturalak, ...

Eguneko Menua, Entsalada Buffeta, ...

Plater Bereziak, Arrazioak, Pita Bokatak, ...

ELIKA ZAITEZ ERA  
OSASUNTSUAGOAN

Larrea Plaza 2  
Tel.: 943 79 79 49

20500 ARRASATE  
(Gipuzkoa)









**Patxi Cabo** antzuolarra eta **Amaia Mundiñano** etxarriarra gaur, egubakoitza, ezkondu dira, Donostian. Zorionak, Antzuolako zuen lagunentzat!

### HILDAKOAK


**Felix Mujika Pedrejon.** Bergaran, martxoaren 10ean. 57 urte.  
**Jose Uribe-Etxebarria Osinaga.** Arrasaten, 10ean. 92 urte.  
**Andrea Diez Gomez.** Bergaran, martxoaren 11n. 88 urte.  
**Florencio Iartza Maiztegi.** Bergaran, martxoaren 11n. 78 urte.  
**Inazio Sarraua Sarraua.** Aramaion, martxoaren 11n. 69 urte.  
**Jose Arana Arantzeta.** Arrasaten, martxoaren 12an. 73 urte.  
**Benita Larrañaga Sarraoa.** Bergaran, martxoaren 13an. 79 urte.  
**Hilario Untzurruntzaga Lazpiur.** Bergaran, 13an. 93 urte.  
**Alejandra Iria Egiluz.** Oñatin, martxoaren 15ean. 88 urte.  
**Joxe Agirre Lartzanguren.** Arrasaten, martxoaren 15ean. 84 urte.  
**Migel Aiastui Agirre.** Oñatin, martxoaren 16an. 84 urte.  
**Rafael Loidi Igartza.** Elgetan, martxoaren 16an. 81 urte.

### ESKELA

## Daniel Arizabaleta Zabaleta

Arrasaten hil zen 2005eko martxoaren 17an, 83 urte zituela.

Haren arimaren aldeko hileta elizkizuna gaur, egubakoitza, martxoak 18, 18:00etan, Arrasateko San Frantzisko parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

### ESKER ONA

## Benita Larrañaga Sarraoa

Patxi Balentziaga Elorbururen alarguna

Bergaran hil zen 2005eko martxoaren 13an, 79 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2005eko martxoaren 18an.

### ESKER ONA

## Florencio Iartza Maiztegi

Donostian hil zen 2005eko martxoaren 11n, 78 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2005eko martxoaren 18an.

### ESKER ONA

## Felix Muxika Pedrejon

Bergaran hil zen 2005eko martxoaren 10ean, 57 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2005eko martxoaren 18an.

### ESKER ONA

## Angeles Eguren Urkiola

Donostian hil zen 2005eko martxoaren 6an, 79 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2005eko martxoaren 18an.

### ESKER ONA

## Jose Arana Arantzeta

Arrasaten hil zen 2005eko martxoaren 12an, 74 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.




Arrasaten, 2005eko martxoaren 18an.

### ESKER ONA

## Teresa Iztueta Armendariz

Mila esker, astelehenean, martxoaren 14an, Berastegin izan zineten guztioi, baita ezin izanik ere, zuen adiskidetasuna erakutsi diguzuenoi, Etxeberria San Migel sendiaren izenean.

*Guretzat ama izan zenaren hutsunea inork ez du beteko, baina hutsune horrek eragindako hotza, adiskide ta lagunentzat berotasunak leuntzen du.*




Arrasaten, 2005eko martxoaren 18an.

### ESKER ONA

## Joseba Uribe-Etxebarria Osinaga

Arrasaten hil zen 2005eko martxoaren 10ean, 92 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2005eko martxoaren 18an.

### URTEURRENA

## Jose Mengual Aguayo

Lehen urteurreneko meza domekan, martxoaren 20an, 12:30ean, Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

### URTEURRENA

## Maite Iñarra Bolinaga

Bigarren urteurreneko meza domekan, martxoaren 20an, 12:00etan, Eskoriatzako San Pedro Parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

### URTEURRENA

## Jesus Sanchez Etxeberria

Lehen urteurreneko meza domekan, martxoaren 20an, 12:30ean, Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

### URTEURRENA

## Kontxita Izurategi Zubia

Lehen urteurreneko meza domekan, martxoaren 20an, 12:30ean, Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

### ESKELA


## Joxe Agirre Lartzanguren

Pilar Larrañagaren alarguna

Arrasaten hil zen 2005eko martxoaren 16an, 84 urte zituela.

*Izan zaren modukoa izatearren, eskerrik asko.*

Otalora kaleko zure lagunak: Arrasate Irratia, Goiena Telebista, Arrasate Press eta Bolintxo okindegia.



Arrasaten, 2005eko martxoaren 18an.

IRAGARPENA

ZAPATUA, 19



**E**gunaren lehenengo partean zerua hodeiguneeekin egongo da. Eta arratsaldean, hodeitza areagotu egingo da. Hegoaldeko haize ahul-bizia ibiliko da, tarte gogorrek. Tenperatura maximoa ez da aldatuko; eta minimoa gutxi igoko da.

DOMEKA, 20



**Z**erua oso hodeitsu egongo da, goi-hodeiekin eta erdi mailako hodeiekin. Euri arina egingo du, batez ere barnealdean. Hegoaldeko haizea ibiliko da mendi inguruetan, eta ahul gainontzeko lekuetan. Tenperatura zertxobait jaitsiko da.

HAIZEA

# Batetik bestera dabilen fenomeno

Atmosferan hainbat arrazoi naturalengatik gertatu ohi den aire-korronteari deitzen diogu haizea. Mota askotako haizeak daude: brisa edo haize leuna, urakanak...

**L**urreko eta atmosferako alderdiak berdin-berdin berotzen ez direlarik, batzuen eta besteen tenperaturaren artean gertatzen diren desberdintasunek eragiten dute haizea. Aire masa beroen igotzeko joera dute, eta aire beroak uzten duen leku hori inguruko aire-masa hotzagoek eta, beraz, dentsuagoek betetzen dute. Haizea, berez, horizontalki higitzen den aire-korronteari esaten zaio. Konbekzio-korronte terminoa, bestalde, airearen mugimendu bertikala izendatzeko erabiltzen da.

Hainbat haize mota daude. Brisa haize barea da, lokala eta txandaka dabilena. Beste muturrean urakanak ditugu. Horiek haize-ekaitz erraldoiak dira. Gehienetan, urakanek presio atmosferiko baxuko gunea osatzen dute, eta inguruan baino tenperatura altuagoa izaten dute. Urakanetan, haizea 110 kilometro ordutik gora ibiltzen da.

Honako erakunde hauek emandako informazioa:



www.euskalmet.net

## HITZGEZIDUNAK

Luma

	Argiontzi, kriseilu		*Izena		Eskegi, eseki
	Gai, gauza		Azpia		
	Niri				
	*Deitura				
Gingond	Dotore, lirain				
Ehortziortzi	Mirabe, zerbitzari				
			Kanpo		
			Emakume izen		
Emakume izen				Zaren	
Presio-u				Lege haustea	
Taberna			Izotza,		
Atze			Arreske		
				Litioa	
				Zarena	
2. musika nota		Salbu			
Jadanik		Atziki txikigarria			
	Zakur				
	Txioa				
Tabakoa gordetzeko zorro				Utikan!	
Nagusi				Gramoa	
			Egunaren zati ilun		

## BILABILA7



## UMOREGIROAN

Kike Amonarriz



### ESPERMA BANKUA

Nafarroako gazteen artean inpotentzia arazoak ugaltzen ari direla eta, Migelikok, odolaz gain, hazia ere ematea erabaki du. Horretarako Iruñeko esperma bankura abiatu da. Erizain atsegin batek adierazi dizkio eman beharreko urrats guztiak eta ondoren, "eragiketa" burutu behar duen kabina erakutsi dio. Presidente sartu da. Pasa dira hamar minutu, ordu erdia, bi ordu eta Migeliko azaltzen ez... Erizaina larritzen hasia da eta atea jo du. Erantzunik ez. Giltza orokorrarekin atea zabaldu eta barruan aurkitu du Migeliko:


– Eskerrak azaldu zaren. Oraindik ez dut lortu eta agian zuk lagunduta lortu ahal izango dut —erizainaren harridura aurpegia ikusteko modukoa zen hitz horiek entzutean—. Egin kontu, aurrena ezkerreko eskuarekin saiatu naiz. Ezinezkoa. Gero eskuinekoarekin..., okerrago. Komuneko tapakiaren kontra ere jo dut hainbatetan..., alferrik. Inola ere ezin dut zabaldu eman didazun potea!

### BATZUK LIBRE

Anderenoa gelara sartu eta:  
– Gaur arratsaldean erleen eta tximeleten sexu portaera aztertuko dugu...  
Ikasle batzuen artean kon-plizitate irriñoak entzun daitezke. Orduan andereñoak:  
– Zuen artean dagoeneko larrutan egin dutenak patiora joan daitezke.

### SOLUZIOAK

U	V	G	•	U	R	U	B
T	U	•	A	X	O	T	•
A	T	U	I	T	•	A	J
K	I	Z	E	E	R	E	•
L	L	•	L	E	L	G	I
L	E	L	•	R	A	R	•
I	L	D	A	R	R	O	J
Z	•	E	R	E	L	E	•
T	A	T	•	A	G	N	G
N	A	I	A	P	A	•	H
I	R	E	N	•			
Z	A	P	A	K			
•	M	•	L	•			



Azaroaren 21a: 036 zozketa

Harpidedunen  
**txokoa**

# Sariak astero!

Astlehenean, martxoak 21, sari hauek izen-abizenak izango dituzte.  
*Astleheneko Goienkaria*-ren harpidedun bazara, adi:

**Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetako bat!**

## Martxoaren 21eko sariak



• Juan Martin Elexpururen **BERGARA ALDEKO HIZTEGIA**.

• Bi gonbidapen **FLORIDA-GURIDI** zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko **BOCATTAN** bi menu jateko (saridun bakoitzarendako bi).

## EIBAR-PONTEVEDRA

futbol partidua ikusteko sei gonbidapen.

(Saridun bakoitzarendako bi)



## BALDINTZAK

- *Astleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

**902 36 38 51**

Astleheneetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

Kuota:

**Harpidetza kuota, 35 euro**

2005 osoko harpidetza kuota.

ASTELEHENEKO  
**Goienkaria**  
astlehenean, aste bukaera osoa

035  
zozketa

**saridunak**

Hauk izan dira aurreko zozketako irabazleak. Zure izena zerrendan badago, **ZORIONAK!**

Juan Martin Elexpururen **BERGARA ALDEKO HIZTEGIA**.

- Juan Ramon Perez Lazpita (Bergara)


Martxoaren 18an, Elgetako Espaloia Kafe antzokian izango den '**PEREZ Y FERNANDEZ**' antzerkirako bi gonbidapen (saridun bakoitzarendako bi).

- Susana Garcia Martin (Eskoriatza)
- Alcazar taberna (Eskoriatza)

Eibar-Tenerife futbol partidurako sei sarrera

(saridun bakoitzarendako bi).


- Jose Miguel Gonzalez (Arrasate)
- Joxe Elortza (Eskoriatza)
- Imanol Mondragon (Bergara)
- Ines Palomo (Eskoriatza)
- Gorka Arizmendiarieta (Elgeta)
- M. Ines Txintxurreta (Bergara)



**'Marrazki Bizidunak'**  
ASTEBURUA / \* ikus beheko taula



**'Ilunpean'**  
EGUBAKOITZA 18 / 21:00 eta 22:30



**'Erakusleiho'**  
ASTELEHENA 21 / 21:30 eta 23:00



**'Debarri'**  
MARTITZENA 22 / 21:30 eta 23:00

**'Zendako preso' filma zapatuan eta domekan**

Ruritania izeneko lurraldean kokatzen da *Zendako preso* filma. 1902. urtea da eta *Ruritaniako erregea* hil-zorian dago. Seme bi ditu, *Michael* eta *Rudolf*. Bietako bat aukeratu beharko du bere oinordeko izateko.

**Jon Arretxe idazle eta bidaiariari elkarrizketa**

Gonbidatu aproposa hartu du orain-goan Oihana Elortzak *Ilunpean* saiorako. Jon Arretxek hamaika bizipen izan ditu egindako beste horrenbeste bidaietan. Horietako batzuk, gainera, liburuetan argitaratu ditu.

**Ezkontzen gaineko saio berezia 'Erakusleiho'-n**

Ezkontzak ospakizun handiak izan ohi dira. Ezkongaien eta gonbidatuek egun horretarako dena gertu izateko erreportaje aproposa eskaintzen dizue *Erakusleiho* saioak. Ite-apaindegia, jatetxea, senargaiendako jantziak... erakutsiko dizkizue.

**Oñatitik pasatuko da 'Debarri' saioa**

Aste Santu aurretiko azken *Debarri* saioa izango duzue martitzenean. Alberto Gorritibereak Oñatiko kontuak izango ditu berbagai. Horretarako, besteak beste, Oñatiko alkate Andoni Gartzia elkarrizketatuko du.



**TELEBERRIAK**

**Telebistetako programazioaren %20 publizitatea da**

Telebista kate guztiek otsailen handitu egin zuten publizitate kopurua urtarri-larekin konparatuz. Batez beste, programazioaren %20 publizitatea izan zen. Bi katek, gainera, gainditu egin zuten kopuru hori: A3k (%21,4) eta T5ek (%20,8). Azken horrek egunean publizitateari denbora luzeen eskaini zion: 4,3 ordu egunean. Otsailen, guztira, 889 ordu publizitate eman zituzten.

**ETBri, ONCE Euskadi Elkartasun Saria**

Kirolari paralimpikoen gainean 2004an egindako erreportajeengatik Once Elkartasun Saria eman diote Xabier de la Fuente kazetariari. Guztira, 40 lagunek jaso dute sari hori.

**ASTEKO PROGRAMAZIOA / Martxoaren 18tik 23ra**

EGUBAKOITZA 18	ZAPATUA 19	DOMEKA 20	ASTELEHENA 21	MARTITZENA 22	EGUAZTENA 23
13:50 <b>Marrazki bizidunak:</b> Fernando Amezketarra Lazkao Txiki 14:15 <b>Berriak Aurrerapena</b> 14:30 <b>Behazulo</b> 15:00 <b>Korrika 15</b> 15:30 <b>Berriak Aurrerapena Klip@</b> 15:45 <b>Emisio hasiera</b> 19:35 <b>Gaurkoak</b> 19:45 <b>Klip@</b> 20:00 <b>Berriak</b> 20:30 <b>Marrazki bizidunak</b> 21:00 <b>Ilunpean:</b> Jon Arretxe 21:30 <b>Gure lanbide zaharrak</b> 22:00 <b>Berriak</b> 22:30 <b>Ilunpean</b> 23:00 <b>Gure lanbide zaharrak</b> 23:30 <b>Gaurkoak</b> 23:45 <b>Emisio amaiera</b>	11:05 <b>Behazulo</b> 11:35 <b>Korrika 14:</b> Korrika 14k bailaran utzitako irudirik ikusgarrienak. 12:35 <b>Marrazki bizidunak:</b> Fernando Amezketarra 13:40 <b>Marrazki bizidunak:</b> Lazkao Txiki 14:00 <b>Auñamendietan</b> 14:30 <b>Filma:</b> Zendako preso 15:25 <b>Ilunpean:</b> Jon Arretxe 16:00 <b>Korrika 15</b> 17:00 <b>Bi eta bat</b> 17:30 <b>Klip@</b> 17:45 <b>Behazulo</b> 18:15 <b>Rallysprint</b> 19:15 <b>Marrazki bizidunak:</b> 03 Patrulla 20:00 <b>Emisio amaiera</b>	11:00 <b>Filma:</b> Zendako preso 12:00 <b>Marrazki bizidunak:</b> 03 Patrulla 13:10 <b>Marrazki bizidunak:</b> Lazkao Txiki 13:25 <b>Ilunpean</b> Jon Arretxe 13:55 <b>Auñamendietan</b> 14:30 <b>Gure lanbide zaharrak</b> 15:00 <b>Filma</b> 15:50 <b>Korrika 15</b> Korrika 14k bailaran utzitako irudirik ikusgarrienak. 16:50 <b>Rallysprint:</b> Gabiriako rallysprinta 17:20 <b>Bi eta bat</b> 17:50 <b>Marrazki bizidunak</b> 18:45 <b>Ilunpean</b> 19:15 <b>Klip@</b> 19:30 <b>Korrika 15</b> 20:30 <b>Auñamendietan</b> 21:00 <b>Emisio amaiera</b>	13:50 <b>Marrazki bizidunak:</b> Fernando Amezketarra eta Lazkao Txiki 14:30 <b>Ilunpean</b> 15:00 <b>Gure lanbide zaharrak</b> 15:30 <b>Klip@</b>  19:30 <b>Emisio hasiera</b> 19:35 <b>Gaurkoak</b> 19:45 <b>Klip@</b> 20:00 <b>Berriak</b> 20:30 <b>Marrazki bizidunak</b> 21:00 <b>Auñamendietan</b> 21:30 <b>Erakusleiho:</b> Ezkontzen gaineko erreportajea 22:00 <b>Berriak</b> 22:30 <b>Auñamendietan:</b> Sarrioen haranean 23:00 <b>Erakusleiho</b> 23:30 <b>Gaurkoak</b> 23:45 <b>Emisio amaiera</b>	13:50 <b>Marrazki bizidunak:</b> 03 Patrulla 14:30 <b>Erakusleiho:</b> Ezkontzen gaineko erreportajea 15:00 <b>Auñamendietan:</b> Sarrioen haranean 15:30 <b>Klip@</b>  19:30 <b>Emisio hasiera</b> 19:35 <b>Gaurkoak</b> 19:45 <b>Klip@</b> 20:00 <b>Berriak</b> 20:30 <b>Marrazki bizidunak</b> 21:00 <b>Debarri:</b> Oñatiko herriari eskainitako saioa. Bertan izango dugu Andoni Gartzia oñatiko alkatea. 22:00 <b>Berriak</b> 22:30 <b>Debarri:</b> Oñati 23:30 <b>Gaurkoak</b> 23:45 <b>Emisio amaiera</b>	13:50 <b>Marrazki bizidunak:</b> -Fernando Amezketarra Lazkao Txiki 14:30 <b>Debarri:</b> Oñati 15:30 <b>Klip@</b>  19:30 <b>Emisio hasiera</b> 19:35 <b>Gaurkoak</b> 19:45 <b>Klip@</b> 20:00 <b>Berriak</b> 20:30 <b>Marrazki bizidunak</b> 21:00 <b>Bi eta bat</b> 21:30 <b>Gure lanbide zaharrak</b> 22:00 <b>Berriak</b> 22:30 <b>Bi eta bat</b> 23:00 <b>Gure lanbide zaharrak</b> 23:30 <b>Gaurkoak</b> 23:45 <b>Emisio amaiera</b>
21:00 Ilunpean	16:00 Korrika 14	11:00 Filma	21:30 Erakusleiho	21:00 Debarri: Oñati	21:30 Gure lanbide zaharrak

GOIENA TELEBISTA / Posta elektronikoa: goitb@goiena.com • Telefona: 943 71 23 95

**DEBARRI**

Andoni Gartzia Oñatiko alkatearekin berbetan

Martitzenean, martxoaren 22an, 21:00etan

Aurkezlea: Alberto Gorritiberea

Alkateari galderak egiteko:

943 71 23 93 edo [www.goiena.net](http://www.goiena.net)



**Ikustekoa!**

DEBARRI / Babeslea:





**Helbide berria:**  
Katabia 2, Bergara

**Orain, gainera:**  
Jantzigintza eta oihalak

**Ordutegia**

Astelehenetik egubakoitzera 10:00-13:00 / 17:00-20:00  
Zapatuetan 10:00-13:00

- Jantzien konponketak
- Jantzigintza
- Oihalak

**Tel.: 943 76 34 61**



# Euskal Herriko Itzulia 2005

Itzuliaren gaineko **GEHIGARRIA** apirilaren 4an Asteleheneko Goienkarian

Asteleheneko Goienkaria |  
**GEHIGARRIAK** Gorde egingo dituzu.

Harpidedun egiteko:

**902 36 38 51**

Astelehenetik egubakoitzera,  
09:00etatik 21:00etara.

**Goienkaria**  
ASTELEHENEKO  
astelehenean, aste bukaera osoa

## Atzeskua

OIHANA ELORTZA

### Karlos Lasa/ Joko-makinen enpresa du

**B**ergarako Arrano tabernan antolatu duzue gaurko, egubakoitza, dardo txapelketa. Eskoletan eta jaietan ere antolatu izan ditugu, baina normalean tabernetan izaten dira.

#### Modan dago dardoetan jokatzea?

Boladak egoten dira. Joan den urtean, adibidez, asko jokatu zen. Aurreko urteetan, berriz, biltegian egon ziren dardo-makinak, hautsa hartzen.

Orain, berriz jokatzen du jendeak dardoetan, baina litekeena da uda ostean inor ez

ikustea jokatzen, nahiz eta makinak tabernan jarraituko duen.

#### Noiz hasi zineten makina horiekin negozioa egiten?

Hil honen 24an, 18 urte egingo ditugu. Bi egun lehenago, Bergarako gaztetxe zaharrea, Komenio kalean zegoenean, mahai-futbol bat jartzea proposatu genuen. Batzarra egin eta onartu egin genuen guztiok eta berehala ekarri genuen. Gero, beste toki batzuetan jartzen hasi ginen.

#### Nortzuk zarete Lam?

Toño, Murtxi eta hirurok. Hala, hirurok hasi ginen eta bazkide

izaten jarraitzen dugu hirurok. Beste hiru lagunek ere gurekin egiten dute lan.

#### Dardoez eta mahai-futbolez gain, badituzue makina gehiago?

Billarrak, txaponak sartzekoak, petakoak eta joko-makinak ere bai.

#### Non egiten duzue lan?

Bergaran hasi ginen eta inguruko herrietan jarraitu. Baina Iruñean eta Miranda de Ebron ere jarri ditugu makinak, adibidez.

#### Mahai-futbolak apenas aldatu dira urtetan, ezta?

Lehenagoak eta oraingoak antzerakoak dira. Hala ere, herrialde guztietan ez dute mahai-futbol berekin jokatzen. Kataluniakoak, adibidez, hemengoak baino handiagoak dira.

Jokoen makinak izan dira gehien aldatu direnak. 1998an hatzekin erabiltzeko pantailak dituzten makinak merkaturatu zituzten, eta izugarritzko aldaketa ekarri zuten hark.

#### Zer sari jartzen dituzue txapelketetan?

Normalean, dirua. Gaur, egubakoitza, Bergaran egingo dugunean, adibidez, snowboard egiteko materiala emango dugu.

Behin, mahai-futbol txapelketa batean, nire autoa eman nion irabazleari. Horixe zen saria.

#### Zertara zoazte Frantziara maiatzean?

Mahai-futboleko txapelketa antolatu dute. 80 mahai-futbol jarriko dituzte kiroldegi batean. Bergarako Txori-k eta Jaso-k txapelketa asko irabazi dituzte eta Ibon Larrañaga ere oso ona da eta gurekin etortzera gonbidatu ditugu, hainbat kategoriako txapelketetan parte hartzeko.

#### Badago mahai-futbolean jokatzeke zaletasunik?

Handia. Sasoi baten, 60 txapelketa antolatzen genituen urtero. Azkena Eibarren antolatu dugu, eta 20 bikotetik 17 bergararrak ziren.



**“Behin nire autoa eman nion txapeldunari, horixe zen saria eta. Normalean, ordea, dirua ematen diogu onenari”**

**“Bergarako gaztetxe zaharrea jarri genuen lehen mahai-futbola duela 18 urte”**

**“Jokoen makinak aldatu dira gehien baina mahai-futbol denak ere ez dira berdinak”**

► Bergara / 38 urte / Frantziara doa maiatzean

## PIPERRAUTSA

### Moreno

**J**uan Carlos du izena, eta Cabrera bigarren abizena. Hizkuntzalari-tzan katedradun da Madrilgo Unibertsitate Autonomoan, eta honakoa idatzi du *El País*-en gaur (domeka 13):

“Konstituzioaren 3. artikuluko 2. atalak dio: ‘gainontzeko espainiar hizkuntzak ere ofizial izango dira, bakoitza bere erkidego autonomoan...’ Hortik atera behar da ondorio Katalunian, Euskadin eta Galizian egon behar duela obligazioa ezagutzeko katalana, euskara eta galegoa, hurrenez hurren. Honek garrantzi handia du, ze honela baka-rrik gauzatu ahal izango da hizkuntza hauek erabiltzeko eskubidea erkidego bakoitzean. Baldin eta gaztelania hiztunek uko egiten badiote hizkuntza hauek ulertzeari, orduan ezinezko bihurtzen zaie, normalean erkidegoko hizkuntzan aritzen direnei, berau erabiltzeko eskubide konstituzionala”.

Aipu luzea da, baina dena du mami. Gurean inor gutxi ausartu da horrenbeste esatera. Tuntu handiz ateratzen dira derrigortasunak hizkuntza kontuan, betiere kanpokoan aitzakian, ez gaitzaten gorrotatu. Baina etxean du arazoa euskarak, hemengo elebarrak oztopatzen diote zabalpena. Oraindik auzo lotsaz gogoratzen dut Anasagasti erdalduna eraso betean Blazquez apezpikuaren aurka, euskara ez zekiela. Utikan halakoak. Aldiz, emadazue Moreno Cabrera asko, hauekin posibleago ikusten dut elkarbizitza.

MIKEL IRIZAR  
[www.goiena.net/blogak/piperrautsa](http://www.goiena.net/blogak/piperrautsa)



Bainu altzari eta osagaiak • Hidromasaje kabinak • Manparak

BILTEGIA/BULEGOAK: Meatzerra 6 • Arrasate • 943 79 14 28 • Faxa.: 943 79 40 43

ERAKUSKETA: Ignacio Zuloaga 4 • Arrasate • 943 79 07 20

